

# IDATZ & MINTZ

## Literatur atalen sorta

54


Aurkibidea: Jabier Kalzakorta: BALADA GAI BIREN EREDUAK *PLAZAN ZER BERRI DA?* ETA *ALHARGÜNTSA*. **3**. Amaia Iturbide: BEZATZAILEAREN ITZALA ETA ZAURIA. **13**. Eneko Urizar: METROKO POEMA LABURRAK. **23**. Miren Agur Meabe: "ILOBA"; "ITXAROTEN". **25**. Jabier Kalzakorta: BASOILARRAREN KHANTOREA. **26**. Iratxe Ormatza Imatz: GANDUA. **34**. Eukene Martin: BARAKUILUEN ERREGINA. **39**. Luigi Anselmi: OLERKIAK. **43**. Sebas Gartzia Trujillo: ZAHARRAK... BERRI. **45**.

ARGITARATZAILEA  
Labayru Ikastegia  
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita  
Asier Astigarraga  
Jesus A. Etxezarraga  
Jabier Kalzakorta  
Miren Agur Meabe  
Lourdes Unzueta  
Andres Urrutia

ARDURADUNA  
Igone Etxebarria



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2013ko zezeilean, Gestingraf, S.A.L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taitu dau Times letra moldeaz. Irudiak «Erté graphics», «Big book of silhouettes» eta «3.800 early advertising cuts» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA  
Aretxabaleta, 1-1ngoia  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa:  
labayru@labayru.org  
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Idazkuntza Politikarako Sailekoonkidea  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

bbk<sup>2</sup>

# Balada gai biren ereduak

## *Plazan zer berri da? eta Alhargiuntsa*

### *Sarrera*

Lan honetan balada gai biren eredu berri bi eskaini nahi ditugu. Eredu biak Zuberoako euskarazkoak dira, eta, guk dakigula, argitaragabeak. Lehen ereduak *Plazan zer berri da?* izenburua duena da, eta eredu hau azaltzean Bermeoko balada bat eta Baztango Urtsuako baladako pasarte bat ekarriko ditugu hona. Lehen ereduak eskaintzean Bizkaiko, Nafarroako eta Zuberoako ereduak ikersaio konparatibo bat egingo dugu. Harrigarria iruditzen zaigu Urtsuako baladako eredu guztiak oso toki mugatu batean bilduak izanik –Baztango ibarreko Arizkun eta ondoko herrixketan– kidetasunak izatea Euskal Herriko bi muturretan, Bizkaiko kostaldean eta Zuberoan. Orain arte Bermeokoa ezagutzen genuen eta gure geografiako beste muturrean, Zuberoan, antzeko eredu bat izatea harrigarri egiten zaigu. Bateratasunak eta berdintasunak hobeki ikusteko hiru ereduak ekarriko ditugu lan honetara.

Bigarren balada gaia *Alhargiuntsa* da. Bigarren ereduak eskaintzean ez dugu ikerketa konparatiborik egingo. Bigarren balada gai honetako ereduak bost ahapaldi ditu. Lau lehen ahapaldiak ezagunak ditugu, azken ahapaldia, ordea, guretzat guztiz ezezaguna da.

### *Urtsuako baladako elkarrizketa*

Urtsuako baladako hamahiru eredu bildu zituen A. Zavalak. Eredu horietan gehienetan neba-arreben arteko elkarrizketa bat agertu ohi da. Elkarrizketa hori indar handikoa da. Eredu guztietatik bat bakarrik ekarriko dugu hona, A. Zavalaren laugarren ereduak, Aita Jorge Riezuk *Nafarroa-ko euskal kantu zaharrak* liburuan bildu zuena:

1	4
–Agur nere arreba, nere arreba Yoana, berri bat aditu dut, nere arreba Yoana.	–Enazazula sala ene aitametara, et’are guttiago Utsuko semetara.
2	5
–Zer aitu duzu bada, nere anaia yauna? –Enbraza omen zara, nere arreba Yoana.	–Zer emain duzu sari, nere arreba Yoana? –Txapela plumarekin nere anaia yauna.
3	6
–Zertan ezautzen naute, nere anaia yauna? –Gerria loditu ta laburtu kotilluna.	–Ez da, ez, hori sari, nere arreba, Yoana. –Bortzetan ehun luis nere anaia yauna.

7  
Hoiek ez tuzu aski,  
nere arreba Yoana.  
–Zaldia zelaturik,  
nere anaia yauna.

8  
–Hoiek ez tuzu aski,  
nere arreba Yoana.  
–Haurra besoetara,  
nere anaia yauna.

9  
Hori da, hori, hori,  
nere arreba Yoana:  
haurra besoetara,  
nere arreba Yoana.

10  
–Zazpi errota berri,  
zortzi yauregi xuri;  
hoien guzien gatik  
nik ez Utsura nahi.

Eredu osoetako bat ekarri nahi izan dugu atal honetara. Hurrengo puntu batean neba-arreben arteko elkarrizketa zorrotz hau konparatuko dugu Zuberoako eredu berriko elkarrizketarekin.

### ***Bizkaiko Egun onak Jaungoikoak balada***

*Egun onak Jaungoikoak* balada A. Zavalaren ERRV liburuan transkribaturik dator 298-299 orrialdeetan, “Izen ona / El honor” sailean. Balada Bermeon batua dago eta biltzailea euskal idazle bat izan genuen: Manuel Ziarsolo *Abeletxe*. Transkripzio hau Jose Ariztimuño *Aitzol*-en bildumakoa da eta 1936 urtean bildua izan zen.

Balada honen *incipit* edo hasiera, *Egun onak Jaungoikoak*, beste euskal balada askotxotan ikusten dugu. Jesus Antonio Cidek hain ondo aztertu duen *Urthubiako alhaba* baladaren hasiera ere bertua dugu *Gainkoak deizula egun hon*. Beste balada batean *Leixibatxua* bezala ezagutzen dugun balada gaiko eredu askotxok ere sarrera bera dute. A. Zavalaren sailkapenean III, IV, VII, XII, XIII ereduak dira.

A. Zavalak, aipatu dugun liburuan, eredu bera transkribatu eta zehaztasun gutxi batzuk eman ohi ditu. Hona zehaztasunok:

“Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, 1936 urtean Bilboko Manuel Ziarsolo *Abeletxe*-k bialdua. Bermeoko Felipe Bilbaori jasota.

Bigarren laukoan agertzen dan *txifle* itza ez degu iztegietan arkitu. Abel Muniategi adiskideari galde-tu genion, bera Bermeon bizi dan ezkerero. Onela erantzun zigun:

–*Txiflea* ez; *txiplie* esaten da Bermeon. *Txiplie emon*, alegia. Belarrondokoa edo masaillekoa emon esan nai du. *Txipli-txapla* ere esaten da. Baiña gaur egun *plastazua emon* geiago entzuten da.

Kanta onek zer ikusirik badu, gure iritzirako beintzat, Urtsuak zazpi leio asten dan kantarekin”.

Manuel Ziarsolo *Abeletxe*-k balada bat baino gehiago bidali zizkion postaz Jose Ariztimuño *Aitzol*-i. Manuel Ziarsolok *Neska ontziratua* baladaren eredu gutxirendu edo menostu bat bildu zuen. *Egun onak Jaungoikoak* eredu, oster, oso ona da. Balada hau elkarrizketa bat da funtsean. Elkarrizketa amebeo edo txandakatua.

1

–Egun onak Jaungoikuak  
emonda, arreba Juana.  
–Alan ekarri daizula  
neba zaldun ona.

2

–Txifle bat emon arren  
ogean zagozana.  
Txiflia bera bere  
senar onak emona.

3

–Nok esan dotzu ori,  
neba zaldun ona?  
–Zeure senarrak esan dost,  
arreba Juana.

4  
–Altzatu egidazu  
ganeko tapie,  
erakutsi daizudan  
gorputztxu neurie.

5  
Zazpi puñalada dodaz  
neure gorputzian,  
zortzigarrena daraukat  
biotzaren erdian.

6  
–Nok esan dautzu ori,  
arreba Juana?  
–Neure senarrak egin daust,  
neba zaldun ona.

7  
–Non dozu senar ori,  
arreba Juana?  
–Kalian pasiatzen,  
neba zaldun ona.

8  
–Zu olan ipini eta  
kalian pasiatu?  
Pagatuko dituz ongi,  
bizi banaiz belu.

Urtsuako baladaren ezaugarri nabarmenetako bat balada hori Euskal Herriko eremu jakin batean bildu izana da. Eredu jakin eta mugatu hori Baztan dugu. Urtsuako baladako ereduak ez dira, kontu jakina denez, Baztanetik kanpora bildu. Ez al da harrigarria, beraz, Bizkaiko kostaldean, oso antzerako eredu bat biltzea?

Esanguraren aldetik bada kontu bat. Non egiten da, non burutzen da elkarrizketa hau? Argi dago

etxe-barrukoa dela elkarrizketa. Bigarren ahapaldian esaten da emakumea ohean dagoela. Laugarren ahapaldian ere oheko estalkia altxatzeko diotso emakumeak bere nebari.

Aitzolek estimu handitan zuen balada hau, Lauaxetaren *Arrats beran* liburuaren prentsa-iruzkina egitean Lauaxetaren “Artzain baten eriotzean” eta balada honetako pasarte bat konparatu zituen<sup>1</sup>.

### ***Bermeoko baladaren ezaugarriak***

Hizkuntzaren aldeko ezaugarri nabarmen batzuk baditu. Bizkaiko euskara garbi-garbia bada ere, baditu beste euskalkietako ezaugarri batzuk. Bosgarren ahapaldiko *daraukat* adizkia bestaldekoa da, eta *grosso modo* Lapurdi eta Baxenafarrokoa dela baieztatu dezakegu. Ez dugu Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan holako adizkirik dokumentatzen. Azken esaldiko *Pagatuko dituz ongi/ bizi banaiz belu* horretan harrigarri egiten dira *ongi* eta *belu* formak. Bata ekialdekoa (Gipuzkoan *ondo* esan ohi da, leku gehienetan) eta bestea Bizkaiko mendebaldekoa.

Elkarrizketa hutsezko balada dugu. Antonio Zavalak intuizio eta sen ona erakusten du, gure ustez, *Urtsuak zazpi leio* baladarekin zerikusia duela adierazten duenean. Zeintzuk dira, beraz, berdintasunak?

Lantainako alaba eta bere neba apezaren arteko elkarrizketa oso antzekoa da. Kasu bietan nebarreben arteko alkarrizketa edo autua dugu. Galdera-erantzunetan oinarrituta dago gure balada eta Urtsuako baladaren pasarte esanguratsu bat ere elkarrizketan oinarritua dago. Galderek oso egitura antzekoa dute *Nok esan dotzu ori?* (4 ahap), *Nok egin dautzu ori?* (6 ahap.), *Non dozu senar ori?* (7 ahap.)

Galdera-erantzunen azkenean errepikatzen diren hitzak paralelismo nabarmena ezartzen dio balada-

ri. Azken hitz hauek deiki edo deigarri indartsuak dira. Gure Bermeoko baladan *arriba Juana* eta *neba zaldun ona dira*; Urtsuako baladan *ene arriba Juana* eta *ene anaia jauna*.

Bi ereduak arteko berdintasunik handiena hauxe litzateke. Bermeoko baladako *Txifle bat emon arren/ ogean zagozana* eta Urtsuako baladako *sinpleza batengandik/ ogean etzana*. Kasu horretan berdintasun ikaragarria ikusten dugu. Esanguraren aldetik ere bada antzekotasunik. Bermeoko baladan lehen hitzean *txifle bat emon arren/ ogean zagozana* esaten da. Ohean huskeria batengatik dagoela dio, baina gerora egia agertzen da. Zazpi puñalada ditu eta zortzigarrena bihotzean. Urtsuako baladan ere antzerako zerbait gertatzen da. Huskeria baten-gatik dagoela ohean dio Lantainako alabak, baina gerora larriagoa den beste zerbaitegatik dagoela dio.

Gure baladako laugarren ahapaldiak, egiturari gagozkiola, antzekotasun handia du Frantzia korteko harako *–Juanita, jatxi zaite,/ zaldien gañetik/ sar daitzudan puñal au/ biotzen erditik* (RVER laneko VII ereduakoa) harekin.

### **Plazan zer berri da**

Puntu honetan Jean Baptista Arxüren kantu-kaier batean agertzen den kantu bat transkribatuko dugu. Kantu hau ez da beste inon argitaratu, guk dakigula. Kantuaren zenbakia 12 da eta Zuberoako euskaran dago. Puntu honetan dagoen-dagoenean transkribatuko dugu, ortografia zaharra errespeta-tuz.

–Plazan zer berri da  
Ene anaia jauna?  
–Zu izarra zirela,  
Ene arriba anderia.  
Tra la la la la  
Tra la la la la

Nountic? Dioia hoiec  
Ene anaia jauna?  
Ene ganic ziradiala  
En'arriba anderia.  
Tra la la la la / bis

Nik zer eghin behardut  
Ene anaia jauna?  
–Erromara joan  
Aita Saintia gana  
Tra la la la la / bis

–Zer emanen deitadazu  
erromara joateco?  
–Zaldi eigerbat chouri  
Ehun pichtola gorri  
Tra la la la la / bis

Ni erromara heltu  
Nic han haurra sortu  
Aphezkupiac egari  
Aita Saintiac batheiatu.  
Tra la la la la / bis

Balada honen transkripzioan J. B. Arxüren ortografiaren ezaugarriak ditugu bete-bete. Testu honetan *egin* aditza idazteko aukera bakarra da Archüren grafian: *eghin*. Baldin *egin* idatzi balitz, beste ahoskera bat izango genuke, *eijer* hitzak duena. Horrexegatik ikusten dugu *eiger* idatzirik, guk *eijer* bezala idatziko genukeena.

### **Plazan zer berri da gaurko grafian**

Puntu honetan gaurko grafia ekarriko dugu aurreko puntuan transkribatutako testua. Elkarrizketak ere markatu egingo ditugu gaurko erara. Aha-paldi bakoitzaren ondorengo leloa, bestalde, kendu egingo dugu. Hona, beraz:

12/ - Plaxan xer berri dal

Ena anais jaunna?

- In ixorra xirela,

En aruba aiberias.

Eraba la la la

Eraba la la la.

Nountie? diorix hoie

En anais jaunna?

En ganix xir adielas

En aruba aiberias.

Erabalala la la (bis)

- Nie xer eqhin behardus

En anais jaunna?

- Erromara jovar

Aitabaintia ganoo

Erabalala la la (bis)

- Xer emanen deitabatxu

Erromara joaites?

- Zalvi eiqubat chouvi

Enun pichtola gorri

Erabalala la la (bis)

Ni erromara hiltu

ni. tran tranra lortu

Aphesupiac egari

Aitabaintia bathiatur.

Erabalala la la (bis)

1

–Plazan zer berri da,  
ene anaia jauna?  
–Zu izorra zirela,  
ene arreba anderia.

2

–Nuntik? Dioia hoiek,  
ene anaia jauna?  
–Eneganik ziradiala  
en'arreba anderia.

3

–Nik zer egin behar düt.  
ene anaia jauna?  
–Erromara joan  
Aita Santiagana.

4

–Zer emanen deitadazü  
Erromara joaiteko?  
–Zaldi eijer bat xuri,  
ehün pixtola gorri.

5

Ni Erromara heltü,  
nik han haurra sorthü,  
aphezküpiak egari  
aita Sainiak batheiatü.

### *Ahapaldiz ahapaldikako iruzkina*

Balada hau aberatsa dugu alderdi askotatik. Gure ustez, azal-mamiek iruzkin bat merezi dute. Atal honetan ahapaldiz ahapaldi balada iruzkinduko dugu.

1

–Plazan zer berri da,  
ene anaia jauna?  
–Zu izorra zirela,  
ene arreba anderia.

Hemen ere gorago egin dugun galdera egin daiteke. Non da elkarrizketa hau? Guk uste dugu etxe barrukoa dela, eta uste dugu, era berean, emakumea ohe barruan dagoela. Etxe barrukoa da *plazan zer berri da?* galdetzen diolako arrebak nebari. Plazan zer berri da galdetzea, kanpoan zer berri den galdetzea bezalakoa da. Eta hori galdetzen duena barruan, etxe barruan edo jauregi barruan egon behar. Baliteke, goraxeago esan dugun bezala, arreba ohean egotea ere, zeren itxurak direnez umea laster egin behar du emakumeak. Baliteke, beraz, haurdun handi egotea emakumea.

2

–Nuntik? Dioia hoiek,  
ene anaia jauna?  
–Eneganik ziradiala  
en'arreba anderia.

Gure bigarren ahapaldi honetan nundik galdetzea *norganik/norgandik* galdetzea bezalakoa da. Guk hona ekarri dugun Baztango eredia *zertan ezautzen naute?* da. Galdera desberdinak dira, guztiz. *Eneganik* forma zaharragoa dugu *enegandik* baino. Erantzun horri *norganik* galdera dagokio. Nondik, ordea, indartsuagoa egiten zaigu.

3

–Nik zer egin behar düt.  
ene anaia jauna?  
–Erromara joan  
Aita Santiagana.



Bestetan ere ikusia dugu hirugarren ahapaldian adierazten den kontua. Umea egiten duen andreak kanpora joan beharra dauka. “Xarmagarri zira eijer eta fresko” kantan apez batengandik haurdun dagoen emakumeak ihes egin beharra dauka. Kasu honetan Erromara joan behar du aita santuagana. Ez ote du baieztapen horrek neba apezak eragin diola umea adierazten?

4

–Zer emanen deitadazü  
Erromara joateko?  
–Zaldi eijer bat xuri,  
ehün pixtola gorri.

Euskarari gagozkiola, *ist-* multzoa *ixt-* bihurtzea batez ere 1850 urteaz gozotikakoa da. Emakumeak eskatzen du saria eta Urtsuako eruedetan gizonak. Aditzari gagozkiola, *deitadazü* edo *deitadazüt* dira bi aukerak. Zaldi zuri baten aipamena egiten da ahapaldi honetan. Zaldi zuri edo zaldi urdinak zaldirik ederrenetarikoak dira. Zaldi zuri baten ondoren ehün pixtola gorri harrigarri egiten da, alde guztietatik. Pistola eskeintzen diolako, asko direlako, eta, azkenik, gorriak direlako.

5

Ni Erromara heltü,  
nik han haurra sorthü,  
aphezküpiak egari  
aita Sainiatiak batheiatü.

Azken ahapaldi hau elkarrizketatik kanpora dagoela dirudi. Ahapaldi honetan *sorthü* aditzak subjektua ergatiboan dauka: *nik haurra sorthü*. Apezpikuak (edo metatesirik gabe edo metatesis bikoitzarekin *aphezküpiak*, *episcopus* hitzetik eratorria) besoetan hartu duela adierazten du *egari* aditzak.

### ***Zuberoako eta Urtsuako baladen arteko berdintasunak***

Zuberoako euskarako gure eredua eta Baztango Urtsuako elkarrizketaren artean bateratasun nabariak daude. Bietan neba-arreben arteko elkarrizketa bat daukagu. Zuberoakoan *ene anaia jauna* eta *ene arreba anderia* dira lehen hiru ahapaldietan errepi-katzen dena.

Elkarrizketa bietan arreba haurdun dago. Elkarrizketa bietan zaldi baten eskeintea dago. Badira egitura berak bi elkarrizketetan. *Zer emanen deitadazü* dio batean, *zer emain sari* bestean. Horra, hitz bitan bi elkarrizketetan dagoen bateratasuna. Gure Zuberoako elkarrizketa honetan, ordea, badira desberdintasun nabariak. Zuberoako elkarrizketan umearen aita neba bera dela esaten da. Zuberoako aldaeran eskaintzak egiten dizkiona neba da, Baztango baladetan, ordea, arreba. Nebak Erromara joateko badiotso ez ote du bere estatusa azaltzen? Neba hemen apeza izan daitekeelako ondorioa atara daiteke. Apeza eta etxe oneko apeza, zaldi zuria eta ehün pixtola gorri eskaintzen dizkiolako. Umea bataiatu ere ez du edonork egingo. Aita santuak bataiatuko du eta apezpikua izango da aita besoetakoaren gainean hitz egiten da. *egari* aditzak “eutsi” esan nahi du, eta besoetan hartu bezala ulertzen da.

### ***Bigarren balada: Goizian goizik jeiki nindüzün***

Puntu honetan Lezarte eskuidatzian datorren bezala transkribatuko dugu balada. Ez du eskuidatzia arazo handirik sortzen hona lehen transkripzioa:

### *Goisian goisik jeiki nudusun*

- Goisian goisik jeiki nudusun espousa nintsan goisian  
Bai eta setaz ere beztitu ekhia jelki senian  
1 Etek'andere sabal nudusun eguerdi erditan  
Bai eta ere alharguntsa gaste ekhia sarthu senian.

— — —

- Mousde Irigarai, ene jaona altcha insadusut  
buria  
2 Ala doulutu othe saisu eneki espousatsia  
Es. eta ere douluturen bisi nisano lurian.

— — —

- Nik Banisun maitetto bat mundu ororun ichilik  
3 Mundu ooren ichilik eta jinko jaonaren ageririk  
Bouket bat igorri ditadassut lili arrosaz eginik  
Lili arrosaz eginik eta erdia phosuatirik  
Saspi ulthez etheki diz.gison hila kanberan  
Egunas lur hosian eta gaias besuen artian  
Sitrou heures uqusten nialarik astian egun batian  
Astian egun batian eta ostirale goisian

— — —

- 4 Saspi ourté igaran dit kapararen pian  
Belé eroiek ustisien sagarويا niklasa  
Sagarويا ustésian haren s-ag-ara niklasa

Fin

### *Lezarte kaiereko eredia gaurko grafiara ekarri-rik*

Puntu honetan, ulergarriago egin dakigun, geure ortografian jarriko dugu Lazarte eskuidatziko eredia. Erantsi edo gaineratzen ditugun kontsonante zein pasarteak kortxete artean jarriko ditugu.

1

Goizian goizik jeiki nü[n]düzün espusa nintzan goizian  
bai eta zet[h]az ere beztitu ekhia jelki zenian.  
Etxekandere zabal nü[n]düzün egüerdi erditan  
bai eta ere alhargüntsä gazte ekhia sarthü zenian.

2

–Musde Irigarai, ene jauna, altxa inzadzütü büria,  
ala dolütü othe zaizu eneki espusatzia?  
[Ez, ez etzitzadzü dolütü zureki espusatzia,]  
ez eta ere dolütüren bizi nizano lür[r]ian.

3

–Nik banizün maitetto bat mündü ooren ixilik,  
mündü ooren ixilik eta Jinko jaunaren ageririk.  
Buket bat igorri ditadazüt lili arrosaz eginik  
lili arrosaz eginik eta erdia phozuatirik.

4

–Zazpi urthez etheki dit gizon hila kanberan,  
egünaz lür hotzian eta gaias besuen artian.  
Zitru hurez üküzten nialarik astian egün batian,  
astian egün batian eta ostirale goizian.

5

–Zazpi urté igaran dit kapar[r]aren pian,  
bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala,  
[bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala,]  
sagar[r]oiak uste zian haren sagar[r]a nintzala.

Gure eredu berri honek lau ahapaldi ezagunez  
kanpora bosgarren ahapaldi bitxi bat eskaintzen du.

### *Lezarteko eredia: ahapaldiz ahapaldikako iruzkina*

Eredu honek ere azal-mamien iruzkin bat merezi du. Gure iruzkina ahapaldiz ahapaldikakoa izango da.

1

Goizian goizik jeiki nü[n]düzün espusa nintzan goizian,  
bai eta zet[h]az ere beztitu ekhia jelki zenian.  
Etxekandere zabal nü[n]düzün egüerdi erditan,  
bai eta ere alhargüntsä gazte ekhia sarthü zenian.

Goisian goisik jeiki nudusun

1  
Goisian goisik jeiki nudusun esposa nintian goisian  
Bai eta setazere bez-tita ~~eta~~ ekhia jeiki senian  
Etheh' antere sabal nudusun equeroti exotitan  
Bai eta ere alharguntia gaste ekhia sarthu senian  
Mouste Trigarai, ene jaona altcha ins-acturut  
burien

2  
Kla choluta <sup>othe</sup> saisu eneki esposatsia  
Es. eta ere duluturen lisi ~~na~~ nisano lurian  
Nik Bamisun maitetto bat mundu ororum ichilik  
Mundu ororen ichilik eta fintes jaonaren ageririk  
3  
Buket bat igorri ditactassut lili arrosaz eginitz  
Lili arrosaz eginitz eta erdia phosuatirik  
4  
Jaspi ulthez etcheli diz-gison hila hamberan  
Egunas lur hasian eta gaias besuen artian  
Sition houres ugusten nialarik astian egun batian  
Astian egun batian eta ostirale goisian  
Jaspi ourte' igaran obit haperaren pian  
beli ~~ca~~ ~~est~~ eroiet ustisien sagaroia nihilasa  
sagaroia ustesian haren sagara nihilasa  
Fin

Lehen ahapaldia eredu gehienetan agertzen den berbera dugu. Harrigarria da izenburuan eta lehen ahapaldian eskuidatzian *nudusun* agertzea. Normailena, ordea, *nundusun* agertzea zen.

2

–Musde Irigarai, ene jauna, altxa inzadazüt büria, ala dolütü othe zaizu eneki espusatzia?  
[Ez, ez etzitadazü dolütü zureki espusatzia,]  
ez eta ere dolütüren bizi nizano lür[r]jan.

Bigarren ahapaldian, ordea, *altcha insadusut* ikusten dugu, n– tartekatua duela. Harrigarria da, era berean, *izadazü[t]* horren tokian –*dusu* etortzea. Bigarren ahapaldi honetan falta da [Ez, ez etzitadazü dolütü zureki espusatzia] zatia.

3

–Zazpi urthez etxeki dit gizon hila kanberan, egünaz lür hotzian eta gaiaz besuen artian.  
Zitru hurez üküzten nialarik astian egün batian, astian egün batian eta ostirale goizian.

Hirugarren ahapaldi honetan ezagutzen ditugun eredu gehienetan *Jinko Jaunari ageririk/ jakinik* dugu. Kasu datiboan, beraz. Gure ahapaldi honetan *Jinko jaunaren ageririk*, genitiboan ikusten dugu. Genitiboan agertzen da Iruriko Etxahunen eredu bezala. Ahapaldi honetako beste berezitasun bat eredu gehienetako *lili arraroz* izan beharrean *lili arrosaz* izatea da.

4

–Zazpi urthez etxeki dit gizon hila kanberan, egünaz lür hotzian eta gaiaz besuen artian.  
Zitru hurez üküzten nialarik astian egün batian, astian egün batian eta ostirale goizian.

Ahapaldi honek ez du berritasun handirik. Ezagutzen ditugun gainerako eredu oso antzekoa da.

5

–Zazpi urté igaran dit kapar[r]aren pian,  
bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala,  
[bele-er[r]oiek uste zien sagar[r]oia nintzala eta]  
sagar[r]oia uste zian haren sagar[r]a nintzala.

Ahapaldi hau zinez bitxia da. Goazen galdera funtsezko batera. Nor hitz egiten du ahapaldi honetan? Emazteak edo senar hilak? Senarraren jarduna dela dirudi. Senar hila kaparraren azpian edo sasitzapean egon da ezkutaturik eta beleerroiek uste zuten trikua edo kirikioa zela eta trikuak uste zuen sagarra zela. Ahapaldi honek misterio handiak ditu. Ahapaldi hau edo honen antzekorik ez dugu inongo euskal kantatan ikusi. Ahapaldi honek misterio handia ematen dio gure balada eredu ezezagun honi.

## ONDORIO BEZALA

Bi balada gai desberdinen eredu ezezagun bi ekarri nahi izan ditugu lantxo honetara. Eredu biak Zuberoakoak dira. Lehen ereduak Urtsuako balada gaiaren arrastokoa dugu, bigarrena *Goizean goizik jaiki ninduzun* edo *alharguntsa* balada gaiko eredu berria da. Gure lan honetan batez ere ereduak finkatzen ahalegindu gara.

## OHARRAK

<sup>1</sup> ARIZTIMUÑO, Jose “Aitzol”: “El heraldo de la poesía bizkaina” in *El Dia* 1936-6-26.

# Bezatzailearen itzala eta zauria

Istorio hau bere itzalarekin etengabeko solasaldiak zeuzkan bezatzaile baten istorioa duzue. Bezatzaileak itzalari Z deitzen zion. Alfabetoaren azken hizkia gogoan hartu zuen, batetik eta bistakoa denez, itzala beti guztiaren atzean gelditzen delako eta, bestetik, bere ozentasunagatik, Z ahoskatzten zuen bakoitzean, ahoa burrunba egingako danbor bihurtzen zitzaiolako, baita unerik gatazkatsuenetan eta zailenetan babesle bakar bihurtu ere. Bezatzaileak hainbestean dauden izen-abizen horietariko batzuk zeuzkan (Pedro Gomez), baina Set goitizenaz ezagunagoa zen, jainko egiptoarra bezalaxe ahari larruz jantzita joaten zelako batzuetan (emanaldien unerik esanguratsuenetan) eta basapiztiak bezatzeko dohain boteretsuak zeuzkalako (behintzat hori esaten zuten eta berak ere hori uste zuen). Ni, berriz, bigarren itzala nauzue, itzal literarioa, nolabait adieraztearren, istorio honen guztiaren itzultzailea.

Set guztiz emana zen zirkura, gogoko jarduna zuelako, baina baita besterik ez zeukalako ere, bizitza honetan gelditzen zitzaien gauza bakarra zelako. Hori esan zion pitonisa bati duela bi urte. Zorte petrala edo

asturugaitza zeukalako hurbildu zitzaien ospe handiko igarle hari etsipenak jota zegoen udazken arratsalde batean. Gela estu hartako mahai angeluzuzenean eskumako besoa bere gihar betean luzatu zion eta jarraian ezkerrekoa kemen berberaz, esploratzaileak iturburuari nola. Forma geometrikoz papereztatutako gela hartan, non oiha-lak, tapizak eta zamaak ateen eta leihoen gisara zabaltzen eta ixten, tolesten eta destolesten baitziren erdi epaitutako iraganaren eta balizko etorkizunaren artean, lausotutako proposamenen eta ospeldutako iradokizunen artean, Seten besoak bide ziurrak ziren, orainean txertatutako zuhaitz adarrak. Hori oso ondo ulertu zuen pitonisa Seten esku ahurrak hosto mamitsuak bailiran oratu eta lerroak irakurtzerakoan, karpa baten zantzuak ageri zirela aitortu zionean. «Inolako zalantzarik gabe, zirkuko karpa da zure etxea, zure etxe bakarra» esan zuen. Eta balizko interpretaziorik uxatze aldera, bi esku ahurrak elkarri itsatsi eta elkarren ondoan jarri zituen gero, froga agirian gera zedin, ispilu haragitu hura begietatik sar zekion. Setek bere aldetik ahapeka eta inork ez entzuteko moduan berak bazuela beste



etxe bat esan zion bere golkoari, itzala, hain zuzen ere, baina guztia hor geratu zen. Ziurtasunak ziurtasun, sartu zen bezain gogo motel irten zen igarlearen kontsultatik eta, horrela, ezin izan zuen, adibidez, udazken zimel hura altxatu kolore biziak paisaietan jarriz edota erantsiz. Iragarpenak iragarpen, gizon arrunta izaten jarraitzen zuen. Edo ez. «Gutxienez eskuetan etxe bat daramat, ze demontre!» bota zion desafio moduan bere buruari, irribarre tristea ezpain lehorretan zizelkatzen zitzaion bitartean eta bizi zen zulorantz abiatzen zelarik.

Izan ere, ganbara zahar batean bizi zen, argi elektrikorik eta urik gabe. Abiatzen zen bazterrera abiatzen zela, beti kriseiluarekin zebilen eta egunean zehar ere, zehazki hainbat aldiz plastikozko ontziekin eta pitxerrarekin komunitatearen ur biltegiraino abiatzen zenean. Gainera, sekulako desordenan amilurik zeukan ganbara, motibazio urriagatik, zorte urriagatik eta desorientazio hura bizi

zen zuloan islatzen zen. Apurtutako gelako leihoa estaltzeko komuneko tapakia zeukan jarrita, lapiko erdi zartatu batzuk barruko itoginetarako, negu gogor batean teilatutik eroritako teila erabiltzen zuen platerizat. Ganbara desordenatuta zeukala esan dut, baina esan zitekeen burua desordenatuta zeukala ere. Bere aldetik, garai hartan hipermetropiarako bezala miopiarako ere betaurrekoak behar zituela zioen, etorkizunik gabe zihoala esateko beste modu bat dena, bestalde. Baina hor egin zen bortitz eta menderaezin, jaio zitzaion azkazal gogorra bizitzari aurre egiteko. Gogortasuna beti zeraman bere baitan, egunero asko kostata irabazitako ogiari hozkatzerakoan, ekaitzei hortzak eta letaginak erakusterakoan edota gau ilunetako amesgaitzoak gainditzeko maindire zimurren artean ihalozka jarduterakoan. Bere larru latzera-ko sardexka zahar batzuen bitartez bizkar hazkagailua fabrikatu zuenean, orduan ere egin zen bortitz eta menderaezin.

Hau guztia duela bi urteko kontuak badira ere, orain pitonisak iragarri bezalaxe zirkua inoiz baino etxeago dauka, goiz eta gau han baitago, lanean egunean zehar eta kamerinoa bizileku duelarik. Gainera, orain Set gisara baino ez dute ezagutzen, benetako izena zeharo ostenduta gelditu baitzaio. Desordena, ordea, ez zaio guztiz aienatu eta, horrela, zakarrontzi bat loreontzizat erabiltzen du eta ohetzat leihoetatik sartutako haize zakarrek gau batean desegin zioten koltxoia. Ohe aurreko ispilua ohar blok moduan dauka, erosketen zerrenda zirkuko emakume artisten begi-lapitzaz apuntatzen duelarik. Beraz, buru surrealista edukitzen jarraitzen du, gertatzen dena da zirkuaren munduan hori nahiko normala edota ohikoa dela.

Kamerinoaren aurreko horman eta erdi-erdian klepsidra bat ikus daiteke. Ez da beste objektu bat gehiago, kutuna baizik eta data bati atxikita dago: 2011ko urtarrilaren 4ari, astearte hartan egin baitzion aurreneko aldiz bezatzen dituen basapiztietariko batek zauria. Eskumako besoan izan zen eta zauri hori kontserbatzeko klepsidraren ur tantak bota zizkion. Agian horregatik ez zitzaion inoiz zeharo orbaindu eta bizi-bizi zirauen.

Zauriak bataiatzen diren moduan bataiatu zituen Setek piztiak, esan nahi dut arreta ezin handiagoz. Zaldi zuri basatiari Ahuski deitu zion, euskal mitologiaren arabera Ahuskin bizi omen baita zaldi zuri itxurako irelu bat. Zaldi beltz basatiari, berriz, Epona, zelteraz “zaldi” esan nahi duelako eta zaldiekin identifikatzen zen aspaldiko jainkosa zeltari ere horrela zeritzolako. Zaldi nabar basatiari Sleipnir bataiatu zion, Europako iparraldeko mitologian dagoen izen horretako zortzi hankadun zaldiaren omenez. Zaldi horixka basatiari Feng Bo izena

jarri zion, haizearen jainko txinatarra eredu. Lehoi eme bati Sejmet deitzen zion lehoi burudun jainkosa egiptoarra gogoratuz, beste bati, berriz, Bastet, katu burua zeukan jainkosa egiptoarraren omenez. Elefante bati Indra ipini zion, gudaren jainko indiarra bereganatu nahirik, beste bati, berriz, Ganesha elefante burudun jainko indiarren omenez. Tigre bati Jia Yu deitu zion, herensuge-arnasa eta tigre atzaparrak zeuzkan izaki mitologiko txinatar hura gogoan, beste bati, aldiz, Raiden ostotsaren jainko japoniar hura ekarri nahian. Lehoinabarren izena Malawi zen, Afrikako leku horretan lehoinabar bati buruzko kontakizun bixia entzuten delako betidanik. Hartza Eate bataiatu zuen, euskal mitologian Eate, besteak beste, ekaitzaren eta haize bortitzaren irelua delako eta hartz honi ekaitzaren pareko marruak zerizkiolako.

–Ala txikitxo, ala txikitxo! –esaten zion Malawiri kokospean laztanak egiten zizkion bitartean, jarraian inori aitortzen ez zizkionak belarrira aitortu eta belarri barrualdeak garbitzeari ekiten ziolarik.

–Horrela potxolo, horrela potxolo! –azpimarratzen zion behin eta berriro Indrari, arrosa petaloak tronparen sarbidean jartzen zizkion bitartean xurga zitzan eta oin zoletan kili-kiliak egiten zizkiolarik.

–Egon jarrera horretan, mantso-mantso –aholkua bidaltzen zion Sejmeti, azala brokatuzkoa edukiko bailuan ferekatuz eta laztankiro begiratuz lehoi emearen larruan azken ilunabarra eta egunsentia egongo bailiran.

Izan ere, Setek tratamendu arretetsua ematen zien basapiztietari, batetik, berarentzat ororen gainetik irudi mitologikoak zirelako eta, bestaldetik, bere bortiztasuna eta menderaezintasuna haiengan islatuta ikusten





zituelako, hedatuta. Inoiz ez zuen oztoporik izan haiekin izan zituen harremanetan, ez entrenamenduetan, ezta jendaurreko emanaldietan ere. Emanaldi bakoitzaren ostean eta opari gisara, adibidez, Eateri kalabazin, alberjina eta patatak ematen zizkion, oso osorik eta mauka-mauka irensten zituenak, edota zaldien ahoetaraino azukre koxkor multzoak hurbiltzen zituen, hodeiak bailiran bi minututan desegiten zirenak. Ordainetan basapiztiek bazekiten amultsuak izaten eta, horrela, elefanteek zigiluak bezalako xurgagailu-musuak ematen zizkieten eta lehoiek zein tigreek, aldiz, begiradez gorputz guztia ez ezik, erraiak ere tatuatzen zizkieten. Jendaurreko emanaldietan gainera garaile sentitzen zen, lurraren jabe, ikusleen txalokekin batera Sleipnirren eta Feng Boren arnas lurruntsuen eta Eateren marruen artean jaso, goraiatua. Horrelakoetan amaiera borobiltzearen eta kisket gisara lepo inguruan Iormungand sugea kiribiltzen zuen, hala deitua Thor bere mailuaz suntsitu nahi, baina ezin izan zuen Midgard-eko sugeaz oroituta. Honi gaineratu ahari larruarekin joko egin nahian edo, noizbehinka ahari adarrak jartzen zituela eta belarri banatan zilarrezko uztai lodiak. Gero, kamerinora joan eta oheratzen zen, gau-mahaian Hanuman tximinoa zuelarik (hala deitua Indiako mitologian izen bereko tximino magiko bezain ahaltsua dagoelako) eta besaulki gainean, berriz, Horus belatza (hala bataiatua jainko egiptoarraren omenez). Ohean zetazala, ametsak izaten zituen, amesgaiztorik, ordea, ia inoiz ez (basapiztien erasorik edota horrelako irudi topiko eta hala-moduzkorik ez), nahiz eta horretarako arrazoi franko zeuzkan, behin Sejmet lehoi emeak ia larru osoa erauzi baitzion atzaparkada batez platanoa

zuritzen den bezala edota Jia Yu tigreak lanabes berberaz goitik beherako arrastoak (azalekoak) utzi baitzizkion, mila lerrodun praken antzekoak. Baina basapiztienganako atxikimenduak gehiago zezakeen eta, horrela, pelutxeko hartzez zein tigrez edota gomazko elefantez zein zaldiz beteta zeuzkan ametsak.

Igarleak bere etxea zirkuko karpa zela esan zionean, bete-betea asmatu zuen, zeren kalera zihoanean dena zirku karpan ikasitakoaren arabera ikusten eta interpretatzen baitzuen. Begirada laukiz egindakoa bailuan collageak sortzera lerratzen zitzaion eta, horrela, gogoratu zuen askotan lapurrak pailazoz mozorrotzen direla disimulatu asmoz, hiltzaileek hilketak bururatzekoan ere pertsonaia fantastikoen eitea bereganatu ohi dutela, ekintza beste batek egin duela euren buruei sinestaraziz eta errua sorbaldeetatik kendu nahian. Beste batzuek, berriz, euren asmoetan egon gabe zirkuko pertsonaiak ziruditela pentsatzen zuen Setek askotan, urrutira joan gabe trafikoa zuzentze lanetan ziharduen udaltzainak edota izkinak euren artean banatzen zituzten loteria zein gozoki saltzaileek. Eta horrela izan ez balitz ere, hala izatea nahi izango luke berak, babestuago sentitzen baitzen modu honetan, etxean bezala. Horregatik kaletik zihoanean, hirugarren dimentsioaren bila abiatuta tolesten eta destolesten diren liburu mugikor horietariko batean sartuta ikusten zuen dena, era horretara antolatuta. Asfaltoa bigunagoa iruditzen zitzaion, belarrez estalitako lur puska baino bigunagoa eta sabairik egotekotan, hodei formez egindako marrazkiena baino ez zen. Fantasia bat zen, zaldiko-maldikoaren edota ur-jauziaren mugimenduaren gisara zetorkiona. Fantasia edo efektu berezi horren bitartez gizartean eman ohi den bezatuen eta beza-

tzaileen arteko bereizketa ere aienaturik gelditzen zen eta hori bazen zerbait.

Agian exagerazio hutsa izango da, baina mendi malda leun eta eskergarriagorik gutxitan nabaritu izan dut nire hatzen artean, kapusai distiratsuagorik, dantzari gorputz lirainagorik (esaten dio Setek itzalari). Egia da batzuetan deseroso samar sentitu izan naitzela zure aldamenean, nabarmenegi utzi nautzulako, ekipaje pisutsuegi zataizkidalako gorputz bakar baterako, espioirik zorrotz eta maltzurrena arima alderrai bakar baterako, edozein zirrikitutik limurtu eta ihes egiten duena. Horregatik sarritan ezpata batez burua moztzen nizula pentsatu izan dut (eta pentsatu ez ezik, amestu ere), zapata lokarriak ebatsi edo zapatak estuegi lotzeko zorian egon naitzaizu ea behingoz behaztopatzen zinen. Gauza hauek guztiak hausnartu ditut eta hausnartu baino gehiago ere, zeren behin aiztotan espezializatutako denda batean sartu bainintzen haietariko bat erosi eta zu barrenbarreneraino zulatzeko, zahagia zinelakoan. Egunaren bukaeran tigre edota lehoinabar larrua geure gorputz-gogotik erauzten dugun bezala, zu nire gaineratik kentzeko sekulako tentazioak izan ditut. Baina ondo pentsatuta, zer egingo nuke zu gabe? Nori kontatuko nizkioke sekreturik sekretuenak, norekin partekatuko nituzke ordurik ilun eta nahaspilatsuenak, non aurkituko nituzke bermatzeko oinarria eta etxeko atea zabaltzeko giltza? Honetan gera nadin, sentimentalegi jartzen ari naiz-eta. Baina egiari zor, zenbat aldiz ez ote gara ibili elkarrekin lepotik helduta gau ertzetan, zenbat aldiz ez ote gara tronpatu eta tronpatutakoan, erori eta altxatu? Horrelako abenturatxoak haragizko laguneren artean kontatzen direnean, aspaldiko istoriotxoak baino ez dira izaten, baina itzal batekin gertatuz

gero, beste dimentsio bat hartzen du guztiak. Izan ere, zu egon ezean, ez nituzke urratu ditudan hainbat bide urratuko, ezta zeharkatu ditudan zenbait zubi zeharkatuko, ez nuke nire larrua arriskutan jarriko. Honengatik zaintzen zaitut ahalik eta ondoen ia goizero bizarra eginez, ispilua baitzinan garbituz eta lotara noanean, kaobazko pertxatik zintzilikatuz, aldaretan zaitudan itzal preziatu hori. Batzuek zurekiko nire ardurak gehiegizkotzat jo izan dituzte. Urrutira gabe, beste egunean etxeko atarian auzoko batek geldiarazi ninduen adierazteko (eta adierazteko baino gehiago gaztigatzeko) ea zer egiten nuen beste egunean izkina batean hormak behin eta berriro laztanduz, ea zer moduak ziren horiek itzal soil bat tratatzeko, ia-ia oinak musukatzeko keinua egin nuela, zeharo makurtu nintzela, hezur-haragizko auzokoekin, ordea, nahiko zakar portatzen nintzela, haien aurrean ate danbadak joz eta inoiz ez adineko jendea lagunduz. Baliteke hala izatea, ez dakit, baina hori bizitzaren alor guztietan gertatzen da, maskota bati sekulako maitasuna har diezaiokezu edota traje bati, konturatu gabe zakurrik zaunkariena eta zirikatzaileena dela edota trajearen kasuan esker txarrekoa. Halatsu norberaren itzalarekin ere. Egin dizkidazunak egin ondoren (ni baino hamar minutu beranduago heldu edo elkarriketa batean nengoelarik, erdian tartekatu, esaldiak ordenaz aldatu eta komunikazio osoa zapuztu edota hanka altxatu pixa egiteko), gauza horiek guztiak gertatutakoan, zu bazter batera jaurtikitzeko gogoia eduki izan dut, liburu zailekin bezala orrialdeak azkar zenbatzeko egin edota orban deserosoekin bezala kotoia behin eta berriro igarotzeko, baina tira, dena haserre-purrustadetan baino ez da gelditu. Zu zaldi eroa izaten jarraituko duzu eta ni,



berriz, sagarroi baldarra, zu burua zut daukan gotorlekua eta ni, ordea, parkeko bankua, zu noiz agertuko itxaroten duena. Zu itzal arma-tua eta ni, berriz, haragi puska bezatua.

Orain Seten itzaletik urrats batzuetara nago. Eta galdetzen dizuet, zuen ustez Seten itzala zer da bezatua ala bezatzailea? Gauza da Setek lehioen, tigreen edota hartzen bizkarraldeak laztantzen zituen modu berberean laztantzen zuela bere bizkarra. Hori, batetik, eta, bestetik, basapiztiek eurek Seten itzalari sekulako itzala, begirunea ziotela, itsu-itsuan dirdiratzten duen ispilua bailitzan. Itzal joko hori gorputzari ere bazegokion, Setek bere gorputza abere baten gisara entrenatzen zuelako, zalu eta gihartsu egotera behartuz, edozein mugimendutarako prest bilakatuz eta hau hain zen horrela, ezen orduak eta orduak ematen baitzituen kriseilua piztu eta bere gelako horman bere gorputzak (gorputz itzalpetuak, itzalperatuak) proiektutako itzalen artean harrapatuta, nahasita eta, besterik ezean, jolasean. Edota bere buruari hori sinestazariz, zeren konturatu baitzen, zirkuan egonda ere, hainbeste basapiztiren artean ibili ondoren, bera ere zeharo zakartu egin zela, laztasunean buru-belarri murgildu, basitu. Gelako horma Seten bortizkeriaren lekuko bihurtu zen. Sejmet lehoi emearen atzaparkadak edota Eate hartzaren orroak ez ziren ezer berak behin horman utzi zituen aztarnekin alderatuta: karea hozkaka bezala janda gelditu zen, giza amorruez baino haratagoko eldarnioaren eraginez. Beste batean Epona eta Sleipnir zaldi basatiak ere txiki geratu ziren, Setek bere itzalari desitxuratu iritzirik, hormari ostikadak eman zizkionean. Horma zulatu eta hondoratuta ez, baizik-eta sabeldu egin zen. Egoera gehiegizkotzat jorik,

anabasa hura itzalaren kontua zela egotzi zion bere buruari eta bere itzalari erdi txantxetan “kriseilu itzala” jarri.

Nik neure aldetik esan diezazueket berariaz Seten itzalaren menpe nengoenean, halako oihartzun induskaturik nabaritzen nuela, energia ilunaren sekulako eragina eta berehala alde egin behar nuela, zeharo zapalduta bukatu nahi ez baldin banuen behinik behin. Baina beno, hori nire irudimena edo irudikapena izan daiteke.

Igarleak duela bi urte zirkuko karpa etxe bakarra zuela esan zionean, arrazoia izan zuen, zirkutik kanpo ez baitzeukan ezer, zirku kutsuko desetxeak baino ez, zehazki bi. Lehenengoari dagokionean, etxea infernu bihurtu zitzaion. Aspaldian banatu zen emaztearengandik eta banaketan bakezko ituna sinatu beharrean oihuek eta ate danbada bortitzek bereizi zituzten biak. Tartean salaketak egon ziren. Zirkuarekin behaztopatu zen arte leku batetik bestera ibili zen lanean, lan kaskarretan eta gainera txarto tratatuta, berak zioen legez “gurdi ibiltari bateko gurrpil”. Honengatik guztiagatik zauriz beterik zegoen edota, berak zioen bezala, “zauri bakar bat naiz neure osoan, bi hanka dauzkan zauria”. Beraz, etxe bakartzat zirkuko karpa, bizitza ere bigarren zirku kutsuko desetxea baitzuen. Eta nahiz eta honi iskin egin nahi izan zion maiz, ezin. Bizitzan, zeinetan ia egunero biraoak eta mespretxuzko irribarreak botatzen baitzizkieten eta txantxa astunak egin, denetarik egitera ohitu zen bere larrua salbatzearren: kapelatik untxiak eta sakeletatik sugeak ateratzen, ahotik tuarekin batera aire gaiztoak jaurtikitzen eta hatzen artetik karta zikinak sorrarazten xamanik zikoitzena izango bailitzan. Eta Setek egindakoez magia emanaldi batetik ateratakoak baziruditen ere

–eta hala ziren–, bizitzan ez zegoen metaforarik, errealitate hutsa ziren, horretan zetzan desberdintasuna edota afera, ilusionismoak bere betean eta gordinean mugak aise zeharkatzen zituela eta gauza erreal haiek guztiak trukuak zirelakoan onartzen zirela eta onartu ez ezik, txalotu ere. Arrazoi osoa zeukan igarleak zirkuko karpa etxe bakarra zuela baieztatu zionean.

Bestaldetik, Z-rekiko zuen harreman ambiguo, ziurrenera ere, zirkuan bertan zegoen ilusionismoaren ataletik zetorkion, bereziki, eskujokari batek antolatutakotik. Bertan bele gizatiar begitartea zeukan gizon gazteak, heroi eta, era berean, biktima plantak eduki eta katez josita bizkarrean txolarre hegoak zeramatzanak, erreka batean sartzen zituen eskuak. Aipatu erreka harriz eta goroldioz osatutako paisaia artifisial batean zegoen. Artifizialtasunak, gezurra badirudi ere, benetakotasun handia ematen zion hari guztiari. Bonbilla bitxien bitartez errekek zeluloideari darizkion efektu berezi berberak zituen. Eskujokariak eskuetan kolore desberdineko bina karta zeuzkan urez bustiak (edota hori ematen zuen). Gauza da kolore desberdinekoak kolore berdineko bilakatzen zirela uretan blai egonez gero, baina kolore berdinekoak izan arren, kolore desberdinekoak bailiran funtzionatzen zutelak. Halatsu Setek bizkar gainean zeraman edota bizkarraren luzapen hutsa baino ez zen itzalaren kasua. Izan ere, itzala soila zuen, euli hegoa bezain, baina, era berean, hezur-haragizko gizaki baten ahalmenak zerizkion hartzen zituen erabakietan eta baita alderantziz ere, itxura gotorrekoa izanagatik ere, oztoporik ñimiñoenaren aitzinean aienatzen baitzen zegoen tokian zegoelarik eta egoera zernahi izanda ere.

Orain Set zirkuan lanean ari da Artemisa laguntzailearekin. Hala deitua da jatorri greziarrekoa izateaz gain, basapiztiak oso gustuko dituelako eta ilargi begitartea daukalako. Euren emanaldirako gutxi falta da, hamarren bat minutu gutxi gorabehera. Une honetan Set Ahuski, Epona eta Feng Bo zaldien apatxak berrikusten ari da, Sleipnir zaldiaren zurda eta buztana orrazten, Sejmet eta Bastet lehoi emeen bizkarraldeak lazantzen eta Indra eta Ganesha elefanteen tronpen zalutasuna frogatzen. Artemisak beste horrenbeste egiten dihardu, agian mimetismoz, Seten itzala ahalguztidunari jarraitzearren edota haren menpeko eta laguntzaile izatearren. Eta horrela, Jia Yu eta Raiden tigrean atzaparrak aztertzeari ekin dio, banan-banan aztertzeari ekin ere. Malawi lehoinabarrari belarri barrualdeak garbitu dizkio eta Eate hartzaren ile-zapak astindu. Askotan emanaldien aurretik bestelako ariketak egin ohi ditu, entrenamendu eraakoak gehienbat, baina oraingo honetan Seten itzala izan du eredu.

Zartailuak, pilota koloretsuak, eskailera-dun oholtzak eta gainerako tramankuluak jasota abiatu dira zirku erdira. Harmailak jendez lepo daude eta argi fokuetako berotasunak (zirkuko hareazko zorua ere betebetea hartzen duena) zirkua are basamortuago bihurtzen du. Setek oasi bat nahi duela, behar duela diotso bere buruari ahapeka. Eskaria da berea, otoitza. Askotan egin du hori, nahiz eta kanpoaldetik bere otoitz-hitzek marmar deslotuak eta galduak diruditen, zoro edo ergel baten erretolikak. Oasirik eta beste itzalik ezean, berea dauka. Beti gertatu zaio berdin. Agian horregatik sakralizatu du hainbeste Z, bere jabe eta gidari bakar bilakatzeraino sakralizatu ere.

Zartailua eskutan duela, bezatze lanari ekin dio. Ahuskiren, Eponaren, Sleipnirren eta Feng Boren itzalekin hasi da, baina ia ezinezkoa izan zaio, zaldi basation itzalok zaldiak berak baino hezigaitzagoak direlako eta, horrela, zartailuak jostorratz zulotik sartzen ez den hari galdua dirudi, burrunzti hegaldi baten atzetik doana. Elur-jausi beltza gainera eta turrustan datorkiolakoan, Set putinka diharduen Sleipnirren azpian jarri da babes bila. Keinu hau sekulako ausardiatzat jo dute ikusleek eta txalo zaparradak igorri dizkiote. Sejmeten eta Basteten itzalak eleberrri beltzekoak baino beltzagoak dira eta haiekin dagoen bitartean, espioi, mertzenario, hiltzaile eta mafia talde bateko buru izan da. Indraren eta Ganesharen itzalekin lan egiteari ekin dionean, bere buruari sinestara zi nahi izan dio safari batean dagoela eta, beraz, itzal haiek argazkienak baino ez direla, baina alferrekoa izan da hura guztia, elefanteen itzalek gorputza baitute, pisua. Itzal haiek hain gertutik nabaritzean, elefante oinatz zapaltzailearen zigilua une batetik bestera jasoko duelako beldurrez zartailuka hasi da itzalekin ezpataririk trebeenaren antzera. Jia Yuren, Raidenen eta Malawiren itzalek zailtasun gehiago ekarri dizkiote, han-hemenka biderkatu eta hedatutako olio eta petrolio orbanak direlakoan, eta orban batzuk aienatu bezain laster, beste batzuk sortu dira atzaparraren amorru berberaz eta azkenean Setek ez daki zehazki non dagoen, ezta zertara doan ere, labirinto baten barruan dagoela uste baitu, ispilu hutsak eta itsuak diren orbanek eginiko labirinto amaigabea. Gainera orbanok badute izaera materialik, esan bezala olioekoa edota petrolioekoa, eta orduan eskuaz harrapatu nahi izanez gero, zikindutakoan ihesari ematen diote. Horre-

gatik Set azkenean bera zer den ere ez daki, ihes sortzaile edota iheslari, eraikitzaile edota suntsitzaile, negoziatzaile edo iruzurgile eta, ondorioz, isobara baten pare dabil, zorabiatuta, berak (eta ez beste inork) sorrarazitako zurrumbiloetan. Eateren itzala marruek berek gauzatu eta egituratua da, hondo asal-dagarrikoa, eta hari lits latzak darizkio. Beraren azpian jartzen denean, bere buruaren menpe jartzen da. Eateren ile matazen erdian Setek bere burua arkakuso ikusten du, hori baino ez da. Sentimendu kontrajarriak dauzka bezatze lanetan dabilenean: batetik, basapiztatasunaren maila horretan egotea gogoko du, besteak beste, bere burua nahiko basapiztiazat daukalako, baina, bestetik, basapiztien itzalak ezin bezatu izanak buruhauste anitz ematen dizkio.

Saioaren bukaera aldean zartailuaz bere burua bezatzen ari delako trazak bereganatu ditu. «Besteak ezinean, nire burua gutxienez» esan du bere kautan ahapeka eta aitortu bera bezatzea ez dela hain eginkizun erraza. Ikusleek bitxitzat jo dute emanaldia eta barre algarei eutsi diete, luzaro eutsi ere. Amaieran bertan ahari larrua jantzi du eta adarrak egokitu. Bizitzan adarrak jarri dizkiote sarritan (kabroi burlatua izan da), baina zirkuan bera da adar jotzailea. Berriro barreak ikusleen aldetik.

2011ko urtarrilaren 4an, astearte hartan Set Jia Yu tigrearengana hurbildu eta honek bezatzailearen asmoa ulertu bezala atzaparkada sakona egin zion. Beste batzuetan ere zauri bera egin dio leku berebean. Gaur ere, 2011ko abenduak 15, osteguna, gauza bera gertatu da. Bizirik dagoelako froga da hori, bezatuaren zauria. Gero, kamerinora joan da, klepsidraren tantek zauria eraberri diezaioten itzalean.

# Metroko poema laburrak

## I

Zenbat eta gardenagoa  
hainbat eta intimoagoa,  
zugana naraman distantzia  
gutziz desagertu eta bakarrik ez  
beltza urdinagoa da.  
Iluna, baina urdina.

## II


Esatekorik ez izan arren  
ez dut isildu nahi  
zure minutuak hil arren  
ezin naiz isildu  
trebea ez izan arren  
gitarra bila noa  
goiz elurtsu honetan  
kanta berri baten bila  
isildu ezin naizelako.  
Ahotsa, lagun nazazu, arren.

## III

New Yorkeko kaleetan zehar  
ahalmen baten bila noa;  
hitzeekin argia pizteko gaitasuna  
Pako banintz.  
Izen zein aditzen atzetik  
korrika doa nire arima.  
Halako batean  
kontzientzia poetikoak  
zuzen begiratzean  
hitzak desberdinak dira  
Pakorenak bailiran.

## IV

Singularreko lehen pertsona  
maiuskulaz beti  
idazten duen hizkuntzan  
I think big.




## V

New Yorkeko iluntasuneko  
metroko poemak dira hauek;  
lau urtetan zehar eguzkirik gabe  
zutik zein eserita  
idatzi dudala konturatu naiz  
libreta beltzari eutsita.  
Jendea eskuinera begira  
muga da marra lodi horia.

## VI

Norbait hil da  
eta margarita psikotikoa naiz  
zerbait dago, zerbait ez dago,  
zerbait dago, zerbait ez dago,  
zerbait dago, zerbait ez dago,  
zerbait dago, zerbait ez dago,  
zerbait dago, zerbait ez dago...  
Arnasgabekoen dimentsioa  
beldurgabeko toki bakarra.  
Argirik ez lur azpian  
hitzik ez iluntasunean,  
mutuak gelditzen dira denak.  
zerbait badago, isiltasuna.






## Iloba

Traktorearen marka hareatan, galburu hotz bat bizitzako azken tartea deskribatzen.  
Ur-puntak ibaiadarrean, uralitazko eskamak gaizki eratutako pentsamenduak ahoskatzen.  
Uhartea, aurrez aurre,  
iraganaren bertsio laburtu baten antzeko.  
Zure heriotza-zurtagiria erreklamatu didate,  
legezko prozedura agurrak sinpletzeko.  
Gabon-kanta bat abestu nizun ahapeka azken orduan (pisu gehiegi zuri jarrita eusteko).  
Inurritegia zenuen hestegorria, haren txakadak deiak zure amari, zure arrebari, zure ilobari: neuri, bakarrari; ez zenuen non aukeratu.  
Familia osoarentzako goraintziekin alde egin zenuen, munduan jada ezer ikusten ez duenaren begi irekiekin.  
Lortuko dut dama bat izatea zentzu guztietan: ez dut malkorik isurtzen, nabari zait estiloa minean eta kudeaketa mota orotan.  
Baina gaizki jolastu zenuen,  
airera buruhauskarri bat jaurti duen nano zoroaren erara.  
Doluaren xuxurla hondartzan, altzairuzko bihotz honen atzean.

## Itxaroten

Bi mila eta hamabiko uztalean maskorren egonarritik arnaska eta esku lokartua lurmentzean jakinik zergatik beluritzen den listua zergatik ez den gozotzen odola.  
Hirurak laurden gutxitan iritsiko da kable batean hozkatuko zenukeen zintzur-sagarra, begi horiek doratu egiten direnak uretan, zakilaren dardara itsasbelarraren txortena lakoa.  
Zure poza olio-tantaren toteltasuna katiluan.  
Orduak atzera eragiten diote mihiari, destainka hartzen zure ahaleginak.  
Ahalegina eskatzen du lasaitasunak: izatea eta egotea ez da borondate-kontu hutsa.



# Basoillarraren khantorea

*Itxaso Arrietari*

## **Sarrera**

Euskal Herri osora zabaldu da *Basoillarrak kantatzen dizü* kantua. Zuberoako kantu hau, Zuberoako beste kantu asko bezalaxe, Benito Lertxundiren diskoen bidez ezagutu izan dute askok eta askok. Kantu hau, bestalde, misteriotsua da bete-betean. Niri, egia esan, euskaraz dugun kanturik misterioetsuenetakoa iruditu zait beti. Ahapaldi bakarrekoa da, batetik, hiru esaldi baino ez ditu, bestetik. Eta hiru esaldiak, elkarrekin zerikusi handirik ez dutela, halako misterio ezin zulatzeko baten adierazle dira. Oso gauza diferenteak esaten dira hiru esaldi horietan, dudarik gabe. Kantuak ahapaldi bakarra badu, ez ote da ondorengo ahapaldiak bildu ez direlako? Ezagutzen ditugun kantutegi guztietan, ordea, ahapaldi bakarra dator.

Gure lantto honetan ezagutzen dugun ahapaldi bakarrekoei ereduaz gainera, eredu osoago bat eskaini nahi dugu. Gure eredu berri hau hiru ahapaldikoa da. Gure kantaren misterioa apur bat argitzen saiatuko gara, eta, zerbait argitzen dugun neurrian, misterio handiagoei ere bidea zabalduko diegu.

## **Basoillarrak kantatzen dizü kantuko ahapaldia**

Kantu hau kantutegi gutxitan aurkitu dugu. *Kantu, kanta, khantore* lanean (78 or.) aurkitu dugu eta

aita Riezuk egin zuen *Nafarroa-ko kantu zaharrak* liburuan, (72 or.) ere bai<sup>1</sup>. Hortik gorako kantutegi tradizioaletan ez dugu honen berririk aurkitzen. Hona nola datorren kantua aipatu dugun bi kantubildumetan:

Basoillarrak khantatzen dizü, Iratiko sorhuan;  
ihurk elezakezü pentsa, nik zer düdan goguan;  
gaiak oro iragaiten tüt maitearen onduan.

Lehen esaldian irudi batek ematen dio sarrera kantuari. Hegazti batek, basoillarrak, kantatzen du Iratiko soroan. Guk Benito Lertxundiren kantua dela eta *Iratiko basoan* bezala ezagutzen dugu. Iratiko basoa handi-zabala da, Zuberoara eta Baxenafarroara eta Nafarroa menditarrera ere zabaltzen dena. Kantutegietako testuetan, ordea, *sorhuan* agertzen da, hots, “soroan”. Nola ulertu behar dugu *Iratiko sorhuan* delakoa? Basoetan egon ohi diren argiune edo arbolarik gabeko tarteari, erdaraz “claro del bosque” deitu ohi diogu. Euskaraz “soroa” da eta Iratiko soroa, Iratiko basoan egiten den, soilunea, argiunea da. Jorge Erriezukoak bere *Nafarroa-ko euskal kantu zaharrak* liburuan, 72 or., honela itzultzen du: *La abubilla canta en el claro de Irati*. Eta guk ezagutzen ditugun testu guztietan halaxe da. Jean Barbierrek ere berdinean ematen du *Supazter*

*txokoan lanean: bas'oilarra kantuz... Iratiko sorhoan.* Benito Lertxundiren ereduari, beraz, jatorriko hitzak aldatuak daude, edo egokituak, edo, bali-teke, nola ez, guk ezagutzen ez dugun kantu eredu batean *Iratiko basoan* izatea. Inoiz pentsatu dut kantua apur bat errazturik edo kaletarturik dagoela. Iratiko basoa ezaguna dugu eta horrexegatik aldatua *Iratiko sorhoan/sorhuan* bati baino gehiagori arraroa edo bitxia egingo zaiolakoan.

Basoilarraren adibide bat baino gehiago aurkitu dugu. Piarre Ibarrart txantrearen “Aitaso baten solasak bere ilobaso xumeari” konposizioan, bosgarren ahapaldian, hauxe irakurtzen dugu:

Artizarra agertzean, jaiki zaite ohetik,  
Ez baita egun guzian oren ederragorik:  
Bas-oilarrak orduan du kantatzen oihanetik,  
Eta xoriek jalkitzen buruak hegaltetik.

Pierre Ibarrartek, Baigorrikoa jaiotzez eta Baionara bizi izatera joan zen txantre kantugileak, basoilarraren berri ondotoxo ezagutzen zuen. Basoilarrak noiz kantatzen zuen ere esaten digu, egunsentian, artizarra agertzen denean. Eta datu hau guztiz interesgarria dugu. Gipuzkoa-Nafarroetan basoilarrari argi-oilarra deitzen diote eta lo-kanta bateko testigantza zoragarria badugu. Gure kantu honetako irudian basoilarrak kantatzen duela dioenean ere, goiza dela jakin behar dugu. Goiza edo hobeki esateko egunsentia. Uste dut datu hau interesgarria izan litekeela. Badakit ni bezala kaletar asko daudekeela basoilarraren kantua noiz den ez dakitenak. Basoilarraren gaineko testurik interesgarrienetakoa Louis Dassance eta Jean Elissalderen “Eskual Herriko hegaztinak eta choriak” GH, 1923, 596 or. lanekoa da:

*Bas-oilarrak badu bertze izenik ere; deitzen da bardin Kukuruchta, Argi-oilarra, Martchoilarra.*

*Nor da chori pollit hau ezagutzen ez duenik? Aski ondolik ibili ahal zaizko gure ihiztariak, bat nunbeit usnatzen duteneko!*

*Ez da udan baizik hemen gaindi agertzen bas-oilarra bere kukuruchta chabal pollitarekin. Ez du maite oihanetik hainitz baztertzea. Maizenik lurrean pausatua dago, har eta mamutchen ondolik.*

*Kaiolan ederki laketzen omen du bas-oilarrak. Hazteko aski omen zaio jaterat ematea, badakizue zer? Idi bihotza chehe-chehea eginik. Uste duzue!*

Gure hegaztiaren ezaugarriak garbitzen ditu pasarte honek. Txori ezaguna dela adierazten du lehen esaldiak. 1923 inguruan askok ezagutzen zuten basoilarra. Basoilarra basoetan ibili ohi da eta nekez urruntzen da basoetatik. Baso handietan egon ohi da batez ere, udan batez ere eta goizetan kantatzen du. Basoilarra lurrean kokatu ohi da xomorroak jateko. Ez ohi da basoetako zuhaitz-adarretan pausatzeko, edo gutxitan. Gure kantuko *Iratiko sorhuan*, esapideak, beraz, argitu egiten du basoilarraren izatea eta ibilera. Basoetako hegazia denez gero, zein baso zabalagoa Euskal Herri osoan Iratiko basoa baino? Benito Lertxundiren Orbaizetako olaren kantuan ere, Orbaizeta Aezkoa da eta Iratiko basoan dago. Kantu honetako bukaera epifonema indartsua da: *eta Iratiko basoan basoilarrak kantatzen du*. Iratiko basoilarra, bestalde, beste kantu batzuetara ere hedatu da, kontu ezaguna denez. Imanolen *Iratiko basoilarra* kantu zoragarriko hitzak Joxe Austin Arrieta poetarenak dira. Honelaxe dio guri dagokigun pasarteak: isildu da Iratiko basoilarra: *Iratiko basoilarra garrazki da isildua bere burua goroldiotan ehortzi du etsitua*.

Bigarren esaldiak misterioa ematen dio kantuari, inork ezin du pentsatu zer duen gogoan gure kantuko protagonistak. Esan ere ez du egiten eta sekretua da, dudarik gabe. Hirugarren esaldiak amodio-kantu baten aurrean gaudela adierazten digu, gau guz-

tiak pasatzen baititu maitearen ondoan. Interesgarria da basoilarren kantua goizalbako delat jakitea. Gau guztiak pasatzen ditu maitearen ondoan eta basoilarren kantua egunsenti-sentikoa da.

Azken ahapaldiak zer adierazten du? *Gaiak oro iragaiten tüt maitearen onduan* horretako *onduan* horrek zer adierazi nahi du? Jorge Erriezukoak *paso las noches, todas, junto a mi amada* itzultzen du. Maitearen aldamenean pasatzen dituela ulertzen badugu, zorion onekoa eta dohatsua dela ulertzen dugu. Baina maitearen *ondoan* horretan “ondorean” edo “ondorik” ulertzen badugu, kontrako esan-gura du. Gure ustean *onduan* batera edo bestera ulertzea justu kontrakoa da.

### ***Zein txori dugu, beraz, kantuko basoilarra?***

Basoilar hitzarekin txori edo hegazti bat baino gehiago ulertzeko bidea ematen digu. Hiru txori behintzat baditugu. Erderazko “faisana” (*Phasianus colchicus*); “abubilla” (*Upupa epops*) eta “urogallo” (*Tetrao urogallus*). Erdarazko *urogallo* bada, hegazti handi eta bakan bat dugu, Europa osoan uragallo edo basoilar gutxi gelditzen omen dira eta baso handietan bizi edo kantatu ohi dute. Markinan basoilar hitza ume-umetatik entzun dut, kaletarra izan arren. Markinan basoilarra gaztelaniazko “abubilla” dugu. Txori bera adierazteko Gipuzkoa-Nafarroetan *argi-oilarra* dugu. Eta argi-oilarra aipatzen dugula ezin sartu gabe utzi Nikolas Ormaetxea Orixek *Euskaldunak* liburuan txertatu zuen lo-kanta harrigarria:

Lo nago ta logure,  
argi-oillarrak jo dute,  
argi-oillarrak jo dute eta  
eguna somatu dute.

Orixek handiak lo-kanta hau *Euskaldunak* poemako *Iruleak* deritzan laugarren atalean sartu zuen.

Lo-kanta zoragarri honi zehaztasun bat jarri zion: “La abubilla, baina erri-kanta ontan ba liteke argiurratzean edo oilaritean jotzen duen oilarra.” Zehaztasun argigarria dugu hau, dudarik gabe. Kontuan izan behar dugu euskaraz ari garela, txoriek kantatu egin ohi dutela, baina oilarrak eta kukuak euskaraz jo egin ohi dutela (oilarrak jo du, kukuak jo du... hortik dator, Mitxelenak dionez, *oilarite* hitza ere *oilarrak + jaite* konposiziotik). *Abubilla* esateko, beraz, hainbat hitz daude. Bizkaian bertan *basoilarra, kirijollarra, erbi-oilarra*. Adiera honetan, gainera, *mendi-oilarra* ere badugu eta basoilarra eta mendioilarra oso hurbil dauden hitzak dira. Dassancek eta Elissalde hiru hitz ematen dituzte *basoilarra* adierazteko: *kukurutxa, argi-oilarra, martxoilarra*. Elissalde eta Dassancerentzat euskarazko basoilarra txori bakarra da, gaztelaniazko “abubilla” edo frantsesezko “huppe”. Hitz hauetatik guztietatik *argi-oilarra* eta *erbi-oilarra* ez ote dira hitz beraren aldaera? Eta hitz horietatik zein da zaharrena? Guk uste, bat izatekotan, argi-oilarra izan behar lukeela. Ia orain dela hogeitau urte Zeanurin Bitoria Artetxeri lo-kanta hau bildu nion:

Logure naz ta loalde,  
martiollarrak jo daude,  
martiollarrak jo daude baina  
ni oindikobarren logure.

Orixek handiak bildu zuen lo-kantaren antzerakoa zen Bizkaikoa. Niri, egia esan, Orixerena baino indartsuagoa egiten zitzaidan. Bere xumean desku-brimendu txiki bat zen. Larogei urteetan aurrera zihuan Bitoria Artetxeren abots zoliak hunkiturik utzi ninduen.

Orixeren eremuan argioilarrek eguna somatzen duela adieraztean ez nuen uste informazioa ematen zenik. Bizkaiko lo-kantako lehen pertsona, *ni* delakoa, oraindik ere logura izateak gau guztia iratza-

rririk pasatzearen ondorioa zen. Hizkuntzaren alde-  
tik ere badira kontu bat baino gehiago zurtz eginda  
gelditzeko. Bizkaiko mendebaldean *logure naz*  
(*nas*) normala egiten zitzaidan, baina *loalde* zer ote  
da? *Logale* edo *logalde* ere ezinezkoak egiten zi-  
tzaizkidan Bizkai barruan<sup>2</sup>. Harrigarria egiten zait  
oraindik ere *daude* adizkia. Bizkaiko *dabe* edo eus-  
kara batuko *dute* dugu, Bizkaiko mendebaldeko  
forma zaharra dugu, forma berriagoa eta oraingoa  
*daure*, *daurie*, *daudie*... dugu. Txori edo hegaztien  
artean kontuan hartzekoa da *martioilarra* delakoa.  
*Martioilarra* hegazti magikoa da bizkaitarrentzat.  
*Martia* Bizkaian martxoari esan ohi diogu eta *mar-  
txo* hitza baino hurbilago dago latinezko jatorritik  
(latinez *martius* da, jakina, erderaz “marzo”, eta  
bigarren yod delakoa dugu). *Martioilarra* martian  
jarritako arraultzatik jaiotzen den oilarra dugu.  
*Martioilarrak* gauerdian jotzen omen du kukurruku.  
*Martioilarra* adierazteko konposizio zaharrik gabe-  
ko aldaera bat ere badu: *martiko oilarra*. *Martioila-  
rra* Bizkaiko kontatera mitologikoetan agertu ohi da.  
Gauetz, ia egunsentia baino lehen, zubia egiten  
diharduten nikolasak edo galtzagorriak desegiten  
ditu *martioilarraren* kantuak. Formula errimatu bat  
baino gehiago agertzen dira gure folkloean “mar-  
tioillartto gorria, izan zakidaz balia” edo “martioi-  
llartto gorria, ointxe nigaz akordetan ezpazara,  
badoa nire bizia”. Gure lo-kantako *martioilarrak*  
badu, nola ez, Dassancek dioen *martxoilarra* hitza-  
rekin zerikusia. Ez dago dudarik, bestalde, argioi-  
lar, *martioilar* eta *erbioilar* hitzak elkarrengandik  
fonetikoki oso hurbil daudela.

Zuberoako kantako *basoilarra*, beraz, zein txori  
ote dugu? Jorge Riezukoak “abubilla” dakar erdal  
itzulpenean eta halaxe da izan ere.

### ***Basoilarra egunsentiko hegaztia***

Hitz interesgarria dugu, beraz, alderdi askotatik  
*basoilarra* eta *argioilarra*. Bizkaian *basoilarra* esan

ohi dugu, batez ere. Gipuzkoa-Nafarroetan argi-oila-  
rra eta Baxenafarroa eta Zuberoan ere *basoilarra*.  
Bazter euskalkietan hitz zaharra gordetzen delako  
kontua ezaguna da dialektologoen artean. Bestela  
esan, bazter euskalkietan hitz bera agertzen da asko-  
tan eta erdiko euskalkietan beste hitz bat. Horieta-  
ko hitz eredugarri bi *basoilarra*/*argioilarra* ditugu. Zube-  
roako hiztegi bat baino gehiago erabili dugu gure hi-  
tzaren bilako peskizan. Louis Gèzek ez dakar hitz  
hau bere *Grammaire* delakoan. Larrasquet-ek *Le  
basque de la Basse-Soule orientale* 1939ko liburuan  
*basolar* hitza “huppe” itzultzen du, hots, erdarazko  
“abubilla”. Junes Casenave-Harigilek *huppe* frantses  
hitzaren ordain bezala *jundane Martine oilar, mar-  
txo oilar* dakartza. Bizkaiko *martioilar* eta ekialdera-  
goko *martxo oilar* hitzek bat egiten dute. Izan ere,  
baseritar batek baino gehiagok adierazi didate mar-  
txoan eguraldia apurren bat epeltzen duenean ikus-  
ten dutela *basoilarra*. Mujikaren hiztegian desberdin-  
du egiten dira *marti-oilar* “gallo de marzo” eta mar-  
tin-oilar “urogallo”, “gallo silvestre”, baina  
bereizketa hau artifizialtzat jotzen dugu.

*Basoilarra* egunsentiko txoria dela adierazi dugu  
gorago. Azkuek bildu zuen *Argi-oillarrak jo due*  
kantuan zehaztasun hau dakar:

La canción llamada *Garbariena* (de las que  
agraman el lino). Cuando en medio de su trabajo  
empezaba la madrugada a cantar el gallo, ellas pro-  
rumpian invariablemente en este canto:

Argi-oillarrak yo due  
Eguna sentitu due.

Kantua luzeagoa da eta nahi izatera jo bedi *Can-  
cionero popular vasco* 818 or, 693 kantara. Kanta  
bera bildu du Patziku Perurenak aldaketa interesga-  
rriekin *Leitzako errege-erreginak*, 1995, 24-26 or<sup>3</sup>  
lanean. Ez dugu dudarik hor *argi-oilarra* “abubilla”  
dela. Nekez izan liteke Azkuek itzultzen duen

“gallo de luz”. Orixek ere oilarra delako ustea du, baina errazago da inolako dudarik gabe basoilarra izatea. Orixek *Iruleak* sailean dakarren lo-kanta bat dator neurri batean Azkuek *Garbariena* dioen kantua-ekin. Kasu bietan gau osoa iruten ari ondoren egunsentia datorrenean argioilarraren kantua sentitzen dute irule-garbariek eta kantatu egiten dute. Argioilarrak ere eguna “sentitu” egiten du eta horrexegatik jotzen du. Gertaera hauek guztiak egunsentian gertatu ohi dira, edo nahiago bada, egun senti-sentian.

### Lezarten kaiereko eredia

Puntu honetan Lezarten kaiereko eredia transkribatuko dugu. Eredu berri eta gure ustez argitaragabe hau ezagutzen dugun eredu bakarraren argigarririk dugu. Eredu honek hiru ahapaldi ditu. Kantaren izena adierazgarria da: *Basa oilararen khantoria*. puntu honetan dagoen-dagoenean emango dugu kantua, kaierean agertzen den ortografia eta puntuazioarekin.

Basa oilararen khantoria

1<sup>er</sup> coup[l]et

Basa oilarrak khantatsen du Iratico sohotic  
Ihourc éré élio phentsa nic sérdudan gogotic  
Gaouac oro igaraiten tit neska gasten ondotic.

2<sup>eme</sup> couplet

Gisson gastiac beharlikessu éskountséco laou gaussa  
Emasté gueia propi éta ahal bada tra la la  
Diru franco sacolan eta déspéndiouén es lotsa

3<sup>eme</sup> couplet

Bas'ourdiac soros ditissu hortsac éta haguinac  
Suhi étaco émissu nahi souré ama sorguinac  
jincouac illaburt ditsacola gaouac eta égunac.

Hiru ahapaldi hauek holaxe datoz. Kantutegi askotan bezalaxe, frantsesez datoz zenbait argibide: *1<sup>er</sup> couplet, 2<sup>eme</sup> couplet, 3<sup>eme</sup> couplet*. Puntu hone-

tan ortografia ezezik, tildeak ere dauden daudenean utzi ditugu.

### Basoilarraren khantorea gaurko grafian

Atal honetan kantua testua gaurko ortografiara ekarriko dugu. Lezarten kaiera zuberotarra bada ere, duda bat baino gehiago sortu dizkigu. Zuberoako euskaran *gaiak* eta *gaizak* behar luke *gauak* eta *gauzak* hitzen orde. Kaierean, ordea, ondo desberdintzen da noiz behar duen ü eta noiz u. Era honetara, *Ihourc, Gaouac, éskountzéco, déspéndiouén, Bas'ourdiac, jincouac* horiek *ihurk, gauak, ezkuntzeco, despendiuen, basurdiak* eta *Jinkuak* izan behar dute. Hona, beraz, gaurko erara:

1

Basa oilarr[r]ak khantatzen dü Iratiko so[r]hotik;  
ihurk ere ez li[r]o phentsa nik zer düdan gogotik,  
gauak oro igaraiten tit neska gazten ondotic.

2

Gisson gaztiak behar likezü ezkuntzeko lau gauza:  
emaztegeia propi eta ahal bada tra la la la la  
diru franko sakolan eta despendiuen ez lotsa.

3

Basurdiak zor[r]otz ditizü hortzak eta haginak;  
suhietako ez nizü nahi zure ama sorginak,  
Jinkuak llabürt ditzakola gauak eta egünak.

Esan gabe doa kortxete artean jarri ditugunak gaurko eta ez hain gaurko ahoskera baten ondorioa direla. Zuberoako euskaran dardarkariak biguintze kontua Lafonek eta Mitxelenak aztertu dute. Izenburua bera adierazgarria da *Basa oilararen khantoria*. Modu osatu batean zer izango litzatekeen adierazten du kortxete barruko kontsonanteak.

Basa oïllararen khantouia

Basa oïllarac khantatsen du Iratico sohatie  
Ihoue ére' élio phentsa nie sérdudan qogotie  
Gaouac oro igaraitén tit néska gastin ondotic.

2<sup>eme</sup> couplet

Gisson gastiac beharlikessu eskountsico laou gausa  
Emasté queia propi éta ahal bada tra la la  
Diru franco sacolan éta despéndiouén es lotsa

3<sup>eme</sup> couplet

Bas' ourdiac soros ditissu hortiac éta haquinac  
Lubi étaco émissu nahi soure' ama sorquinac  
zincouac illaburt ditsacola gaouac éta égünac.

## *Iruzkina ahapaldiz ahapaldi*

Atal honetan *Basoilarren khantorea* ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu. Kantu aberatsa dugu eta badago zer iruzkindurik euskararen eta esanguraren aldetik. Gure saio honetan ezin dugu inola ere dena komentatu. Gure ustez interesgarri egiten zaizkigun kontuak azalduko ditugu.

### 1

Basa oillar[r]ak khantatzen dü Iratiko so[r]hotik; ihurk ere ez li[r]o phentsa nik zer düdan gogotik, gauak oro igaraiten tit neska gazten ondotik.

Nola transkribatu behar da *basaoillarra* edo *basoillarra*? Silaba kopuruak *basaoil(l)arra* dela adierazten du. KKKko ereduaren silaba bat gehiago dugu basoilarra bada, eta horrexegatik dugu *dizü* adizkia. Adizki honek, *dizü* honek, silaba bat gehiago du gureak baino.

Lehen ahapaldi honetan hitzen kasua inesiboa izan beharrean ablatiboa da: *sorhotik*, *gogotik* eta *ondotik*. Gau guztiak pasatzen dituela neska gazteen ondotik horrek esangura alda dezake, dudarik gabe. Aditzei gagozkiela, *elio phentsa hori ez liro phentsa* baten laburdura dugu eta *liro hori \*iron* aditza dugu. Esanguraren aldetik *elio phentsa* eta *elezakezü phentsa* gauza bera dira. Kontua da KKK liburuko ereduaren aditzak zuka ditugula *khantatzen dizüt*, *elezakezü phentsa*, baina *iragaiten tüt* ez dugu zuka, forma ez markatuan baino. Adizkera hori *tüt/tit* zuka jartzekotan, *ditizüt* izango litzateke, gure ustez. Gure lehen ahapaldi hau ez dugu zuka, baina gainerako biak zuka ikusiko ditugu.

Gure lehen ahapaldi honek beste esangura bat ere hartzen du. Gure aurreko ereduaren maite baka-raren ondoan pasatzen ditu. Oraingo eredu honetan neska gazteen ondotik pasatzen baditu gauak, beste esangura bat du kantuak.

### 2

Gizon gaztiak behar likezü ezkuntzeko lau gauza: emaztegeia propi eta ahal bada tra la la la la diru franko sakolan eta despendiuen ez lotsa.

Oraingo ahapaldi honetan *diru* hitza ikusten dugu eta ez *dihariü* edo antzeko forma bat. *Dihariü* Zuberoako forma da eta *diru* gainerako lurraldeetako. Lau gauza behar omen ditu gizon gazteak eta hiru aipatzen ditu. Behar duen gauzetako bat ez du esaten baina. *Despendiua*k gastu handiak dira. eta, gizon gazteak, beraz, hondatzailea edo gasta-tzailea izan behar du. *Emaztegeia propia* horretako *propi* hitzak “garbia” edo “dotorea” adierazten du. *Emaztegeia* hitzak *-gei* atzizkia duela Zuberoakoa izan behar du. Izan ere, *-gei* atzizkia bazter euskalkietakoa dugu, Bizkaikoa eta Zuberoakoa eta Errokarikoa, gainerako euskalkietan *-gai* aurkitzen dugu.

### 3

Basurdiak zor[r]otz ditizü hortzak eta haginak; suhietako ez nizü nahi zure ama sorginak, Jinkuak llabürt ditzakola gauak eta egünak.

Hirugarren ahapaldi hau ere, lehena bezala, irudiduna dugu. Irudian, oraingo honetan, beste animalia bat ikusten dugu: basurdea. Irudia Manuel Lekuonaren erdarazko hitzetan *elemento pintoresco* dugu.

Lehen irudiak halako xarma berezi bat du. Iratiko basoko soroan udaberritik udarako goizetan kantatzen duen hegazti eder bat ikusten dugu. Azken irudian basurde bat datorkigu eta basurdearen hortzen eta haginaren gainean hitz egiten du. Basurdeak hortzak eta haginak zorrotzak dituela esaten da. Irudi gogor honen ondoren neskatilaren amaren gainean hitz egiten da. Lotura hau oso



indartsua da eta ondo josia dago neskatilaren ama sorgintzat hartzen delako.

Lehenengo ahapaldian eta hirugarrenean agerzen diren animaliak baso dute konposizioaren oinarrian: basoilarra eta basurdea.

Hitzei eta atzizkiei gagozkiela, *suhietako* horrek “suhitzat” esan nahi du. Nola transkribatu behar dugu, bestalde, *illabiürt* edo *llabiürt*? Bigarrena izan behar, laburtu hitza modu markatuan dugu *llaburtu*. Zuberoako euskararen “llabiürtü”.

### *Ondorio bezala*

Orain arte ezagutzen genuen ahapaldi bakarreko kantua, kantu osagabea dugu, gure ustez. Orain arteko eredu bakar hori A. Donostiak bildua izan behar zuen. Guk ahapaldi bakarreko eredu hori osatu nahi izan dugu. Osatu eta bide batez esanguraren gaineko zehaztasun eta uste batzuk arrazoitu nahi izan ditugu. Kantu polit honetako eredu eta aldaera berriak etorriko ahal dira!

### **OHARRAK**

<sup>1</sup> NEHOR ETA G. DUFAU: GH 1923, 2 gehigarrian ere agertzen omen da musika. Guk ezin izan dugu aurkitu.

<sup>2</sup> Lo-kanta hau *Arratia inguruko hiztegia* lanean ere aurkitu dut “marti” hitzean. Lekuko beragandik bildutakoa da, Bitoria Artetxegandik. Hitz bat desberdin transkribatua dugu. Lan horretakoak *oindokarren* egiten dute eta guk *oindokobarren*. Gaur eguneko Zeanuriko euskaratik hurbilago dago *oindokarren*. Beste hitz misterioitsu bat, ordea, berdin transkribatzen

dugu: *loalde*. Hiztegi berean “lobalde” hitzean beste lo-kanta bat aurkitzen dugu: Obabatxoa lo-balde/ ardiok itxi baleide;/ ardiok dire iru mille/ banabilde bille-bille. (E. Gorostiaga. Zeanuriko koplak)

<sup>3</sup> Txori honen gaineko narrazio polit bat ere badu *Harrizko pareta erdiurratuak* liburuan, Euskaltzaindia 2004, 110-112 orrialdeetan.



# Gandua

Kotxeko argiek zabaltzen deustenari adi noa, Txaberren berbaroa ulertu ezinik. Etxerako bidean hasi jat berbetan, barruko lapi-koa ganezka daukala, bor-bor. Anabasa galanta daukala otu jat, kontzertua egin eta gero zerbeza zale ibili dalako, besteak beste. Ez deusatz gura izan eten, berbak ez isil-tzeko, baten eten eta agur, badakit. Bere berbaroa eroan behar dot, ahal dodala maitetasunez, hari garbi bat aurkitu daian arte. Horra, urteen purasuz ikasi dodana.

Aho iturritik dariona kotxe barruan zabalduz doa. Antza danez, bateria-jotzaileak esan deutso beste talde baten be hasiko dala joten, taldean segiduko dauala baina beste talde baten be gura dauala jo. Beste taldekoak gazteagoak dira, Txaberreri bere musika-belaunaldikoak ez dirala iruditzen jako. Hori, taldea, are gehiago, bera saltzea iruditu jako, beste talde batera, eta, gainera, gazteagoak. Saldu esatea, zelanbait, lar begitandu jako, ostera. Berbea gura izan dau jan, ulertzen dauala beste talde baten jo gura izatea, aurretik gitarra-jotzaileak be esan egin eutsan eta harrezkero hiru taldetan jo izan dauala, bata bestearen atzetik. Bai, akordau naz, kantu eder ha idatzi eban,

bihotzean orratza zorrotz sartu jakon. Harrezkero bertan datza orratza. Gaur apur bat barrurago egin deutso zizt.

Gitarra-jotzailea beste taldean hasi, eta Txaberrek bere onera emon ezinik igaro ebazan negua eta udabarria, isilik gehiengotan. Kostau jat kostau ikastea barruan daroanaz berba ez egitea bere bidea dala onera egiteko. Ni ondoan egon eta barruan hausnarrean daukana ez aterateak ezin dot ondo hartu, neska-laguna naz, edo zer naz.

Neuk be, baina, badaukat barririk berari esateko. Pentsau leiteke isilekoa dala, eta ez da, ez. Honezkero esanda euki beharko neutsan. Kontzertuaren aurretik ezin, ez dau ardurarik gura, bere burua kontzertuaren giroan murgildu behar dau-eta. Kontzertuaren ostean be, ezin, ondo joan da, eta ospatu gura izan dau.

Gitarra-jotzailea beste talde baten hasi zanean, amorrua eta samina abestietara bideratu ebazan. *Berria*-n agertu zanez, “Amorru eta saminez beteriko disko gogoangarria”. Handik luzera jakin neban nik, neu ez nintzala abestietako gaia. Ai, neu inozente, munduko zila! Halan jakin neban

era guztietako zauriak josten dauzala idatzitako abestiakaz. Batzuetan, eta batzuetan baino sarriago, madarikatu egin dot, neuri berba egin barik, gurago daualako bere baitan ostendu eta musika sortu. Dana dala gogoratu deusat neure buruari, eta gaurkoa adibidea da, hasi da hasi neu kontuan hartzen eta bere kezken entzule egiten.

Berbaz-berbaz esan ez badeust be, taldekideentzat eskaintzen deusiena ez dala nahikoa sentiduten dau. Eta, halan, zerrendatzen hasi jat zenbat egun, ordu, daukan implikazinoa-eta, abestiak egiteko hartzen dauan denporea, taldekideen proposamenak entzuten dauzala, lokalean orduak egiten dauzala berak bakarrik, hareek zer esango entzuteko prest dagoala beti. Adierazo gura izan deust burua, bihotza, osorik taldera begira dagoala ia beti, baina ez deust bihotzik aitatu. Taldekideek ez dabe, antza, hori dana kontuan hartu. Zurrunbilo mingorraren erdiunean, esan egin deust, oraingoan berbaz, gai, gauza, izan beharko zala haien ilusino guztia biltzeko taldean, taldeburua dan ezkerero. Huts egin dauala, bere buruagaz, taldeagaz. Ezin dala ezere buru izan. Eta bidean behera segidu dau.

Halako baten ahoko txorrota eten egin dau. Zain geratu naz ez dot jakin-eta hausnarrean dagoan edo nik zer esango itxaroten. Ekin deusat. Taldeak berak sortu ebal, eta horrenbestez normala dala berak ase sentidutea taldeagaz, baina taldekoek beharbada beste zeozer be behar dabela, eta horregaitik ez dirala aldentzen. Ez da egon modurik, ostera, edo ez dot aurkitu erarik bere buruan berba horreek oihartzuna izan daien. Gatxa da norberak buruan daukazan egituretan arrakalak egitea, are gehiago,

hormigoiz eginda badagoz. Txaberrena hormigoiz armatuaz dagoz eginda, ganera.

Bere bizi proiektua da taldea, batzuetan pentsetan dot geurea baino inportanteagoa. Joan-etorrietan ibilten da, taldera eta nigana, neuk indarra emon deiodan, barriro be indartsu urteteko. Eta, jakina, neuk emon, behar dauan hori eskini. Gizon handiaren atzeko emakume handia ei naz. Isiltasuna behar izaten dau barruan sortzen jakozan melodiei eta berbei adi entzuteko. Ardura bako isiltasuna, ez erabatekoa, musika ia beti entzuten da-eta geurean. Halan ba, zubi-lana egin behar dot, ardurak nonork hartu behar dauz-eta. Ezin dot esan gustura egiten ez dodanik; gauzak egitea, antolatzea, gustuko dot, beharra be halakoxea daukat (kultur etxe baten egiten dot behar). Horren trukean, kantuen lehen zirriborroak entzuten deusadaz. Zelanbait kantuen konplizea naz. Begitantzen jat ahal baneu berak musikea sortu daian bakarrik neuk ganerako guztia egingo neutsan, sortu dauzan kantuak bere ahotsean entzun dakidazan, horretarako bakarrik. Erromantikoegia, beharbada, ezta? Ze benetan ezingo neuke dana egin, eta, ganera, aldi baten ostean ez dakit nik, ba, horren gustura egingo neuken dan-dana. Eta ostera be esateko daukadan barria etorri jat gogora. Noiz esango deusat esan beharrekoea? Galdereak jauzi egin deust errepidera, iges egin ez deiodan. Bazterreko kartel baten be ikusi dot, NOIZ?

Ez deusat kasurik egin. Kontua da lehengo kontzertutik miresgarria egin jatala zelango amorruez kantetan dauan, irrikaz gitarrea jotzen, berak bakarrik be eszenatoki osoa argitzen. Gauzea da eszenatokian entzuleakaz, benetan, osorik eta erabat sinis-

ten dauala, kantuaren nota bakotxean bere gorputz osoa jarten dauala, munduan besterik ez balego lez.

Berba egin barik daukat ondoko eserlekuan. Ez dakit begiak itxita edo zabalik daukazan.

Astelehenean Maite liburutegikoagaz batu behar nazala etorri jat gogora (noiz esango deusatz? geroago, bai, geroago oin lotan ei dago-eta), ea oraingoan liburu egunean jentearentzako zeozer erakargarri eta interesgarria antolatzen dogun. Igaz ahalegin handiak egin arren, ez genduan bape ondo asmau eta jente sano gitxi hurreratu zan, osterantzean be kultur etxearen inguruan ibiltan diran batzuk baino ez. Barriak gara Maite eta biok herrian, orain urtebete pasa hasi ginan beharrean, hon gabilz apur bat herriko erritmoa-edo hartzen, alkarteak eta bizilagunak hobeto ezagutzen. Hamaika gauza dago herri baten bizi kulturalari eragiteko, baina gero zerbait antolatu behar danean aldats gora ibiltan gara. Oraintsu ikasi dogu jentea ezagutu, haren konplizidatua bilatu behar dogula ekimenek aurrera ondo egin deien. Txaberreri begiratu deusatz di-da baten. Txaberrek ideak be emoten deustaz, nahiz eta askotan estratosferakoak izan. Ezpanak irribarrez zabaldu jataz. Bai, gero bai gero esango deusatz, eta ondo hartzen ez badau? Zer?

Isilik segiduten dogu. Zenbat denpora pasa da, ordu erdi, beharbada, edo gehiago be, ezin jakin, kotxeko erlojua ez aurrera ez atzera dago aspalditik. Apur bat astuna da kotxe barruko giroa, baina ez dot kutsatu gura giroa musika jarritz.

Min hartu dau. Min. Ez dakit bera ohartu dan. Ekatxaren haizetearan mende dagoala





esango neuke. Mina dagoan lekuan amorrua ikusten dau, lagunaren saldukeria txikia. Eta borrokan dihardu haren kontra, bere buruari onartu barik, bere buruari eta bihotzari mosu egin barik, gehien behar dauana hori bada be.

Donibane Lohitzuneko gaztetxeokaz berba egin eta bertan jotzeko proponidu deutsie. Halan bota deust, plausta. Iparralden joteko aukera gitxi izaten dabela-eta pozik egongo dala, neuk erantzun. Eta halan hasi dira gozo-gozo gure berbak joan-etorrian, bihotzetik igarota.


Gero nekatuta dagoala-eta, loak hartu dau. Neuri gogoia emon deust kotxea lotu eta bertan mosu emoten hasteko. Ez dot ezer egin, osteria; neure pentsamentuetan murgildu naz. Kotxetik urten baino lehenago gura deusat esan, ezin dot gehiago geroratu. Kotxea geure hartu-emonen lekuko izan da eta hasieratik, berbaldiak, musika entzun, narrutaldiak, haserrealdiak, pozaldiak, gure gorabeheren parte be izan da. Estutu egiten deust esan behar deusadala pentseteak. Nasai egoten ahaleginak egin, egin, arren, sabeletik gora jatort itoaldia. Etxetik gero eta hurrago gagoz. Zelan hartuko dau? Zer egingo dogu? Zelan moldatuko gara? Hiru itaun horreetatik aurrera ezin dot egin, zerumugea balira lez, ez deuste ixten ikusten ostean dagoana.

Motorra amatau dot, Txaber mobidu egin da, begiak apur bat zabaldu, eta ailege gara? Bai, neuk. Eskua hartu eta neure sabelean ipini dot. Ez dau zabaldu. Gaur ez dot kalimotxorik edan, neuk. Kotxie ekarri behar izan dozu ta. Harri eginda begiratu deusat. Aaaa! Baina... zer, zelan? Noiztik? Eta neuk, zer arte, probea egin arte, ba, itxaron

gura izan dot egin. O... ostia! Txaberrek, ba,  
ba, eeee, ba, kumea erosi beharko dogu!

Ganduaren antzean, barruan daukadan  
argiak gu biok bildu gaitu kotxetik kanpo.

Bihar be ganduak bere gorputza bilduko  
dau? Noiz arte iraungo dau? Lurrundu egin-  
go ete da gorputz indarbakoa lokalean itxi-  
ta? Indar nahikoa eukiko dot?



# Barakuiluen erregina

## *Bidaiaren arrastoa*

Esaten omen da heriotzaren aurrean  
mundu honetatik hustasunera hegaldia egingo dugun une-unean  
hartzen dela akorduan nork bizi izana oro  
istant batean

istant batean auskalo besterik ez dirauen gure bizitza denak

Horretaraxe helduta niri ez zait hala jazoko  
oraingoan doi-doi oroitzen bainaiz behinolako zenbait sentipenez  
zu ezagutu aurretik ez zitzaidan deusik gertatu  
gero denetarik

gero denetarik esaterako kaiera hauxe erostetik gaurdaino

Bakarrik utzi ninduzun aldi batean izan zen  
gure istorioa marraztu nahian arkatza eta koaderno eskuratu nituen  
nire bidaldi-arrastoaren lekukoak izango zirelakoan  
amodioaren bila

amodioaren bila bidaian atergabe nauzu halabeharrez harat-honat

Ezin oroitu noiz hasi lehendabizi orrialde hauetan  
salbu eta hasieran beti eskuz *maite zaitut!* izkiriartzen nuela pozarren  
eguneko dataren ondoan hamaika bider errepikatuta

*maite zaitut!*

*maite zaitut!* tinta urdina hegaka paperezko zeru mugagabetik at

Ez dakit zenbat denbora jarraitu nuen horrela  
harik eta orriko erpin ezkutuean ustekabeko *maite ote zaitut?* eskribitu arte  
orduante gertatu zen arkatz-minaren kraska  
nire aldean  
nire aldean orri hitsaren aurpegian behera anpuluak zintzilika

Hartan luze jo genuen ezin ezer aldaturik  
*maite ote zaitut?* eta arkatzaren kraska paperaren negarra neu ere dardarka  
halere behingo batean berariaz honakoa izkiriatu nuen  
azkenean  
*azkenean ez zaitut maite eta ez zaitut inoiz maite izan!*

ezin ahaztu ostera ezabagomaren erosketa apiril batean

### *Udaberriaren esperoan*

Harrezkero xiribita-petaloak haizatzen nengokizun:

*ez? bai? bai? ez?*

udaberriaren esperoan

koadernoko orriekin batera ezbaian halabeharrez:

*maite zaitut! maite ote zaitut? ez zaitudala maite!* atergabe  
borratu *ez zaitudala maite!* berriro izkiriatu *bai!* berroratu  
berriratu behin eta berriz jarri *ez zaitudala maite!* kendu *ez!*  
barre *bai?* edo negar *ez maite!*  
egunkarian adur  
malko  
muki  
odol orbanak  
borra eta borra *ez zaitudala maite! ez zaitudala maite!*  
harrituta ezabagoma

Nola haurretan papera-harria-guraizea jolasean  
hala nire egunkariko orria-arkatza-ezabagailua elkarrekin jokoan  
zein baino zein egoskorrago:



arkatzaren mina zorrotzak *ez zaitut maite* idatzi eta kraskatuz gero  
borragoma bigunak ez desegiten zuela paper erromantikoak *zaitut maite* eraldatzen  
ostera arkatzen mina zorrotzak *ez zaitut maite* idatzi eta kraskatuz gero borragoma  
bigunak ez desegiten zuela paper erromantikoak *zaitut maite* eraldatzen oster  
arkatzaren mina zorrotzak *ez zaitut maite* idatzi eta ...

gaueko orri urratuak aurrera joan ahala atzera pasa eta pasa  
beti ere  
toki berean  
trabatuta

### *Maitasun-ibilbidea*

Bihotzetako leherketaren hondakinak  
(hitz-zipriztinak mina-birrinak borra-hondakinak)  
astintzen ditut sarritan leihotik behera  
patiora  
saguentzat

saguak katuaren jana  
katua hitz-zipriztinez mina-birrinez borra-hondakinez puztuta daukat  
behin oka eginez gero  
berriz betetzen da nire inguruko ibilbide ekologikoa:

Bihotzetako leherketaren hondakinak  
(hitz-zipriztinak mina-birrinak borra-hondakinak)  
astintzen ditut sarritan leihotik behera  
patiora  
saguentzat

saguak katuaren jana  
katua hitz-zipriztinez mina-birrinez borra-hondakinez puztuta daukat  
behin oka eginez gero  
berriz betetzen da nire inguruko ibilbide ekologikoa:

Bizi eta hil-lege natural honi jarraitzen laguntzen dit katuak  
ene patioko katu adiskideak **miau!**  
gure amodio-akaberaren zaindari **miau! miau!** deskontsolatuak

Udaberriaren esperoan beldurrak nengoen

Egunkari honi betiko agurra noiz eman zain

Ezabagomaren azken zatiari begira

Etorriko zinen unearen aiduru

Etorriko zinen unearen beldurrez batik bat.



LUIGI ANSELMI

# Olerkiak

## *Udazkena 1*

Behin eta berriro tematzen dira ezkiak  
hostoak airera jaurtitzen,  
urrezko txanponak balira bezala  
–aurkia beilegi, larua ifrentzua–.

Baina erasiak dioenez,  
jokoa ez da errenta,  
eta luze gabe  
ondasunak oro  
galduko dituzte  
ezinbestez...

## *Udazkena 2*

Uda akitzearekin batera  
zeru-lurrek distira galtzen dute,  
argiaz gabetzen da airea,  
eta eguzkiari berari ere,  
zokoan datzan ezpata  
zaharrari ahoa bezala,  
herdoiltzen zaizkio  
azkenean inarrak...

Alkimista trebea  
dugu, halere, udazkena  
eta urterik urte,  
huts egin gabe,  
atzera heltzen zaigu  
bazter ferdeak oro  
urre bilakatuz...



### *Gabon kanta*

Eguberri bezperako  
goizalde hotz honetan  
haize lapur zitalak  
atso ilaunak  
diruditen arbolak  
aise gabetzen ditu  
haien urre bakanaz.

Eta Jainkoa inoiz  
jaioko ez zen  
banketxe atarietan  
txiro eta erromesak  
elkarren ondoan  
metatzen dira,  
mando-idirik ezean,  
batak besteari  
bero apur bat  
emate aldera.



# Zaharrak... berri

## *Euskal testu zaharrak literatura liburuetan*

Oro har, euskal literatura liburuek, nire ustez, ez diete arreta nahikorik eskaini euskal testu zaharrei. Luis Mitxelenak, *Historia de la Literatura Vasca* (1960) liburuan, bost orrialdetxo eskas eskaini zizkien<sup>1</sup>. Are gutxiago Luis Villasantek bere *Historia de la Literatura Vascan* (1979), non opa zien orri bakarra<sup>2</sup>. Orixek bi orrialdetxo zabaldu zizkion, nahiz eta idatzi “XV’garren mendeko gure poesi bakar oriek, ez dioten inongo erri-poesia’ri zorrik”<sup>3</sup>, eta Iñaki Aldekoak, lau orrialde (2004)<sup>4</sup>... Euskal literaturaren historialarien artean, J-B. Orpustan izan da literatur testu zaharrei arreta eta espazio gehien eman diena: *Precis d’Histoire littéraire basque 1545-1950: Les chants basques à la fin du Moyen Age : une littérature aristocratique*, 15-27. or.

Liburu edo txosten espezializatueta panorama hobia dugu. Besteak beste, aipatzekoak ditugu Juan Carlos Guerraren *Viejos textos del idioma. Los cantares antiguos del euskera* (1924); Manuel Lekuonaren testu zaharrei buruzko zenbait iruzkin eta,

batez ere, *Literatura oral vasca* (1935); Joseba Lakarra, Koldo Biguri eta Blanka Urgellen *Euskal Baladak. Antologia eta azterketa* (1983); Labayru Ikastegiko *Mendebaldeko euskal baladak* (1995), Antonio Zabalaren *Euskal Erromantzeak* (1998)<sup>5</sup>... Bestalde, guztiz interesgarriak ditugu Luis Mitxelenaren *Textos arcaicos* vascos (1964) eta Ibon Sarasolaren *Contribución al estudio y edición de los textos antiguos vascos* (1983), baina lan horiek, euskal testu zaharrei arreta handiago eskaini diete hizkuntza-ikuspuntutik, literatur ikuspuntutik baino. Azken urteetan, aipagarriak zaizkigu, beste batzuen artean, Julen Arriolabengoaren *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan* (2008) eta, Jose M. Satrustegi, Patri Urkizu, Patziku Perurena eta, batez ere, Xabier Kaltzakortaren euskal testu zaharren gaineko lan emankorrak. Iparraldeko testu biltzaileen artean, berandu aritu baziren ere (XIXgarren mendean, hain zuzen), aipatzekoak ditugu Agustin Xaho, Francisque-Michel, J.D.J. Sallaberry eta Jean Jaurgainen kanta zaharren bildumak.

Lan horiei guztioi esker, euskal testu zaharren kopurua eta literatur balioa ezagu-

tu badazaguzkigu, baina, azaltzen ez zaizkidan arrazoiengatik, testu horien presentzia urria izaten da oso ikasleentzako literatura testuetan. Laburrean esateko, ez ditugula, eskola edota institutu mailan, behar beste, zabaltzen, eta ziurrenik, are eta gutxiago, hemendik aurrera, noiz eta literatura klase orduak murriztuz doazkigun ikasturtez ikasurte. Eta, egia esan, euskal literatura testu zaharrak ez zaizkigu lotsatzekoak, alderantziz baizik.

### ***Euskal testu zaharren ezaugarriak***

Inguruko literaturen parean, gurera iritsi diren euskal literaturaren testurik zaharrena, a) oso laburrak izaten dira (ahalpaldi bakarrekoak edo, ez gutxitan) eta b) berantiarak izateaz gain, c) zatikatuak azaltzen zaizkigu; d) ez ziren argitaratuak izan berriaz egindako liburuetan, kronika-bildumetan baizik. Horiez gain, anonimoak ditugu eta ez dakigu noiz sortuak izan ziren, ahoz aho transmititzen baitziren. XVIgarren mendeko kronika liburuetan edota eskuizkribuetan iritsi zaizkigu, oso egoera txarrean sarritan. Are egoera nahasiagoan ere bai, zeren testu zaharren artean sartzen ditugun testu batzuk (Bereterretxe Kantorea, kasu), XIX. mendeko kantutegietan bilduak izan baitziren lehenengoz, literatura historialariek testu zahartzat onartzen dituzten arren<sup>6</sup>.

### ***Euskal testu zaharren nabarmentzeko batzuk***

Ez dut, inolaz ere, esango euskal testu zaharren hondarrak aberatsak direnik. Nolanahi ere, eta hauxe da azpimarratu nahi

dudana, oso baliotsuak zaizkigu, dudarik ez, alde batetik baino gehiagotik.

- Lehen balioa. Euskal literaturako testu zaharrei esker, euskal historiako pasadizo batzuk ezagutzen ditugu, legenda edota mito itxurapean nonbait (beste herrietako literatura zaharretan gertatzen den antzera), baina testu zahar horiek gabe askoz ezezagunago genuke (galduta omen) ilun eta murrizta dugun Euskal Herriaren 'historia'. Hala eta guztiz ere, euskal herrikook, espezialista batzuez landa, ez diegu behar beste ko kasurik egiten.

Euskal herrikook zenbat bider zeharkatu ditugu Urrexolako zelaiak, kasu, hortxe gertatu ziren liskar odoltsuez ezer susmatu gabe; zenbat bider igo Akondiako mendira, hango "hildako asko, biandaz betetako pertzak, artilleria, zamariak eta hiru asteme"<sup>7</sup>en oroitarrik (oroimenik) gabe; zenbatetan igaro Izarrraga portua, "que es el paso natural de comunicación por donde atraviesa hoy la carretera de Vitoria", hantxe 1443an gertatutakoa gogoratu eta imajinatu gabe, noiz eta Pedro Abendañoak "fugitivo del suelo oñacino y ansioso para llegar a sus dominios de Villarreal..., dejaba el camino más cómodo y natural de Cruceta, por temor sin duda a la huestes de Butron y Muxica... Iría el buen caballero jadeando y medio a gatas por aquellas breñas y en más de un paso habría de buscar apoyo asiéndose a los tamujos que entre ellos se crían"<sup>8</sup>; Salinas Kondearen kanturik ezean, nork gogoratuko liguke Mungian, Larrauri haraneko guda, non, 1471n, bizkaitar guztiak, hots, ganboatarrak eta oinaztarrak lehenengoz bildu ziren Gaztelako erregearen kontra, foru tradizioa behin betiko indartuz, bide nabar<sup>9</sup>.

Eta zer esan gaurdaino iritsi zaizkigun topónimo bezala dugun 1448ko Mondragoeren erreketaren kantaz edota Tolosa inguruko Beotibarren 1321eko borrokaz. Zein (h)istoria(o) hoberik topatuko dugu Aralar-tik Elgea mendikateraino luzatu zen “Kontrabandisten bidea” memorian gordetzeko, “Sandailia”ko poema baino, noiz eta 1457. urtearen inguruko liskarrean, ‘gaiztoak’, ez behin, bai birritan, ardo lapurtu zieten, ordena-gizonei, hots, Gaztelako Korregido-rearen (erregearen) agindupean zeuden Hermandadekoei, alegia?

Eta ez dezala inork esan, kantuetan agertzen zaizkigun gertakizun horietatik gehienak mitifikazioak direnik; liskarrak, izatekotan, askoz arruntagoak izango ziren; horixe berori esan baitezakegu Espainiako, Frantziako edota munduko beste herrietako gertakizun zahar gogoangarriez ere bai.

- Bigarren balioa. Euskal testu zaharrak frogatu ditugu euskal hizkuntza, XV. mendearen inguruan, herriko xumearenaz gain, (zenbait) pertsona kulturena ere ohiko hizkuntza izaten omen zela; hots, ‘aristokratiko’ena ere bai, Orpustenen hitzak erabiltzeko.

Egia omen da XVIII-XIX. mendeetako euskal burgesiak muzin egin ziola euskarari (“Zer da eskas Euskal-Herrian? Barkatu erraiten badut zart: *une bourgeoisie variment basque*”<sup>10</sup>), baina behinola gauzak ez omen ziren horrelakoak, neurri batean, bederen. Zehazkiago esateko, euskal testu zaharrek erakusten digute, XV. mendearen inguruan, bederen, euskara “la lengua de la intimidad familiar y de las relaciones privadas” izateaz gain, izan bazela zenbait aristokratikorena ere bai (Joan Perez Lazarraga, Maria

Estibaliz Sasiola, Arnaut Oihenart, Saint Cyran omen –beronen etxean ikasi baitzuen euskara Silvain Pouvreauk (? – 167?)–, euskal prosaren sortzaileak izan ziren Joanes Leizarraga eta apez kalbinista laguntzaileak...).

Hirugarren balioa. Badaude beste datu batzuk, zeintzuek erakusten diguten, zeharka bada ere, XV-XVI. mendeetan, kultura handiko pertsonak ere euskaraz baliatu zirela beren literatur testuak idazterakoan, edota bestera esateko, euskal testu zaharrak, zenbait kasutan behinik behin, idatzi zituztenak kultura handiko pertsonak izan zirela.

Izan ere, euskal idazki zaharren artean, testu modernoak eta literatur balio handiak topatzen ditugu<sup>11</sup>, Mitxelenak eta Caro Barojak egiaztatzen digutenez. “Alguna de estas composiciones, dio Mitxelenak euskal testu zaharrez ari direla, estaban muy lejos de ser despreciables desde el punto de vista estético”<sup>12</sup>; are esplizituago ere dugu Julio Caro Barojaren iritzia: “a juzgar por las que nos quedan... era tan buena como la contemporánea de cualquier otra parte de España, si es que no la aventajaba en ciertas cualidades líricas!”<sup>13</sup>. Adibide batzuk lekuko:

Artikulu honek behartzen gaituen espazio laburrean, Beotibarko kantuaren ahapaldia aipatuko dut, lehen-lehenik. Gureganaino iritsi den ahapaldi bakarra, metrika klasikoan *tetrametro trokaiko katalektiko* izenez ezagutzen da (4/4//4/3) eta literatura greko (Arkiloko, Eskilo, Soflokles, Euripides...) eta latinean gehien erabilitakoen artean aurkitzen dugu, tragedia eta guda kantuetan, batez ere, Erdi Aroan, besteak beste, gaurdaino iritsi den XIII. mendeko *Pange lingua* eliz kantuan esaterako.

Horrez gain, “Mila vrte ygarota: / Vra vere videan” idatzi zuen euskal olerkariak, literatura landuetan erabilitako esaera bera (“Al cabo de los años mil, vuelven las aguar por do solían ir”, Colección Mestre; “A thousand years hence the river vill [sic] run as it dit”) adierazten digu euskaraz, era ederragoan ere.

Ez da kasu bakarra. Urrexolako batailako kantan ere, erdal literatura kultuetan oso erabilia izan ohi zen klixen bat agertzen zai-gu (erdal literaturotan baino lehenago?). Izan ere, *Gaiça zenduan lenizanos (lenizanok) Urruxolako lecaya* esaera (1400. urtearen ingurukoa?) eta gaztelaniatzko “Mala la hubisteis, franceses, la caza de Roncesvalles” antzekoak ditugu. Baina gaztelaniako esaera hori, lehenengoz 1525 inguruko juglare erromantzeetan agertzen omen zaigu (*Libro de los cincuenta romances*, 1525. ren ing.<sup>14</sup>).

### ***Nabarmentzekoenak***

Dena dela, euskal testu zaharren artean, niri neuri jarraian aipatuak ditudan honako bi hauek bereziki nabarmentzekoak iruditzen zaizkit: lehena, Akondiako guduaren kantan heldu zaigun: *Akondia, lexarraga lexarbag*a bertso lerro bakarra, eta bigarrena, euskal testuetan ohikoak –ohikoenak?– izaten zaizkigun *kopla zaharrak*.

- 1390. urtean, gaurko Arrate basilikatik hurbil dagoen Akondia (Arrikurutz) mendian, ganboarren eta oinaztarren arteko liskar odoltsua gertatu zen. Eibarko Pedro Lopez Untzueta oinaztarrak Durangoko Juan Iburguen ganboarra garaitu zuen<sup>15</sup>. Ganboarrak lizarrez egindako lantzekin hain ondo horniturik zeuden, ezen guda-

zelaia “lezarraga” zirudien (ohar gaitezen, bide nabar, lizarrak omen zirela lantzak egiteko egurrik egokiena). Liskarraren ondoren, haatik, lezarraga “leizarbaga” geratu zen: “Akondia, (el cerro) del fresno sin fresno (hobeto, nire ustez: la fresneda sin fresnos), aludiendo al abandono por parte de los gamboínos de sus armas”<sup>16</sup>. Metaforizazio prozesua guztiz aurreraturik agertzen zai-gun bertso-lerro horretan, euskal olerkari zaharrak ondo baino hobeto bereganatua zuena.

Azpimarratzekoena zaiguna, haatik, zera da. 1606. urtearen inguruan, W. Shakespeare tragedia egile entzutetsua (entzutetsuena, orain arte?), *The Royal Play of Macbeth* tragediaiko unerik gorrienean, guztiok txunditurik uzten gaituen errekurtsio berberaz baliatu zen. Izan ere, delako tragedia horretan, Birnamgo basoa mugitu egiten da Macbethen kontra ‘jainkoen (sorginen)’ iragarpen txarrak konplutuz<sup>17</sup>. Zelan basoa mugitu Dunsinaneko gaztelurantz? Ba bai, Ingalaterrako gudariak, buruak arbola-adarrez estalita gaztelurantz hurbiltzerakoan, baso iruditu zitzaizkion Macbeth ikaratuari. Akondiako kantuaren irudi bera, beraz, 100-200 urte beranduago omen.

- Euskal koplak zaharra. Euskal testu zaharretan ‘koplak zaharra’ delakoa ohikoa izaten zaigu. Lekuona zaharrari zor dizkio-gu ikerketa eta iruzkin aberats bezain argigarriak euskal koplak zaharrei buruz. Manuel Lekuonak koplak zaharren lau ezaugarri azaldu zitzaizkigun: primitibismoa (testu zaharrak direlakoa, alegia); ahapaldiko lehen bi bertsoen eta azken bi bertsoen arteko erkaketa; azaleko inkoherentzia eta barneko antzekotasuna eta zentzumenezko erlazioak.



Erdal munduan, hogeigarren mendeko literatur ikerlaririk onenetakoa dugu Carlos Bousoño. Bada Carlos Bousoñok surrealismoaren irudiak azaltzerakoan, Manuel Lekuonak euskal koplak zaharretan azaldu zizkigun ezaugarri bertsuak azpimarratzen ditu hogeigarren mendeko surrealismoaren irudietan.

Carlos Bousoñok metaforizazio prozesuan surrealismoak eragindako iraultza honako honetan zehaztu zuen: metafora klasikoak *transfiguratu* egiten ditu erkaketa baten A eta B terminoak; surrealismoak, aitzitik, *transustanziatu* egiten ditu (barkatu barbarismoak): “Lo mismo cuando un poeta renacentista escribe “cabello como oro” que cuando Vicente Aleixandre dice “las muchachas son rios felices”, un plano real (cabello, en un caso; muchachas en otro) queda visto bajo la forma de otro imaginado (‘oro’, ‘rios’). Pero se realizará no ya una *transfiguración*, sino una verdadera *transustanciación*, si trastocamos la normal colocación de los planos real y evocado, de tal modo que éste se sitúe en el lugar que aquél corresponde, y a su vez aquél venga a ocupar el lugar que éste dejó vacante. Si normalmente la construcción es *A como B*, nuestro poeta, muchas veces, dirá *B como A*... O sea: en lugar de ‘labios como espadas’ (donde el plano real es ‘labios’), ‘espadas como labios’ (título de uno de los libros de V. Aleixandre), pero sabiendo que el plano real del nuevo complejo sigue siendo el mismo: ‘labios’. Se obtendrá así una expresión enormemente intensa... El trueque de planos habrá producido algo así como una transustanciación. El uso de este procedimiento tiende, evidentemente, a proporcionar a la imagen ese carácter *plástico*, que también poseen característicamente los procedimientos visio-

narios. La plasticidad es, pues, una tendencia de la poesía contemporánea”<sup>18</sup>... eta euskal testu zaharrena ere bai.

Izan ere, euskal koplak zaharretan, lehen-lehenik metafora zein erkaketaren *bigarren* terminoa agertzen zaigu: *Haltzak ezti bihotzik / Ez gaztanberak ezürrik*, eta jarraian metaforaren lehen terminoa: *E’nüan uste erraiten züela aitonen semeek gezürrik*<sup>19</sup> (“B como A”, Carlos Bousoñoren azalpenean). B-ren eta A-ren arteko zubia ez da arazoizkoa: *surrealista* edo baizik (“Incoherencia aparente y cohesión real” “¿Mentalidad mágica en las coplas?” Manuel Lekuonaren azalpenean): *Zer ete da andra erdiaren zauria? / Sagar errea eta ardoa gorria*<sup>20</sup>, XX. mendeko olerkari surrealistetan antzeratsukoa: B eta A-ren arteko erlazioa ez da zientzia-arlokoa (metafora klasikoetan gertatu ohi zaigunez) sentiberatasuneko (egungo olerkigintzaren ‘sinestesia’) baizik<sup>21</sup>.

### **Bukaera**

Artikulu honetara alderatu ditudan iradokizun batzuk gehiago zehaztu beharko ditudala onartzen dut. Ez da erraza, kontuan hartuta euskal testu zaharrak zehaztu gabeko urte (mende) luzeetan sortuak direla. Hala eta guztiz ere, sakoneko tesiak, hots, euskal testu zaharrak uste dugun baino gehiago kalitateko onekoak –inguruko literaturakoak bezain onak, usu, edota, zenbait kasutan, hobeak ere bai– direlako iritzia zutik dirauela defenditzen dut. Nahikoa zait... Hortik datorkigu, euskal jendeen (eskola, institutu, unibertsitatekoen) artean, euskal literatur testu zaharrak gehiago zabaldu eta sakondu beharra. Guztion mesederako izango zaigu eta.

## OHARRAK

<sup>1</sup> MITXELENA, L., *Historia de la Literatura Vasca*, Taurus, Madrid, 1960, 40-45. or.: “Los cantares antiguos”, “El Renacimiento”.

<sup>2</sup> VILLASANTE, L., *Historia de la Literatura Vasca*, Aranzazu, 1979, 39-40. or.: “Primeros textos vascos”.

<sup>3</sup> ORMAETXEA, N., *Euskal-literatura'ren atze edo edesti laburra*, Euskal Eснаlea, XVII, 1927, “Poesi erritarra”.

<sup>4</sup> ALDEKOA, I., *Historia de la literatura vasca*, Erein, 2004), 11-15. or.

<sup>5</sup> Testu zaharren biltzaileen artean, goian aipaturikoez gain, azpimartzekoak ditugu J. A. Donostia *Euskal Eres sorta* (1921), R. M. Azkue *Cancionero Vasco* (1923), Jorge de Riezu (1948), P. Lafitte *Kantuz Kanta kantuak* (1967), J. Juaristi *La flor de las baladas vascas* (1989)...

<sup>6</sup> MITXELENA, K., *Historia de la Literatura Vasca*, o. c., 42. or.: “El arcaísmo del cantar es evidente y resalta más todavía si lo comparamos con composiciones más recientes de carácter novelesco. Oído de labios de un sulentino, con su sobria melodía y su ritmo grave, es un auténtico eco del pasado, milagrosamente conservado en la frágil memoria popular”.

<sup>7</sup> *Ibarguen-Cachopin Kronika*

<sup>8</sup> Revista Vascongada, “Los versos de Avendaño”, Juan Carlos de Guerraren eskutitza Arturo Campioni 1901eko iralaren seian.

<sup>9</sup> CELAYA, A., *Señores de Vizcaya*, BBK-AVD ZEA, Bilbao, 2005, 405. or.: “Las dos fuerzas enemigas se encontraron el sábado 27 de abril de 1471 cerca de Mungüía, en Larrauri. Era un terreno montañoso, cubierto de arbolado y de malezas que podía compensar la fuerte presencia de la caballería del ejército de Haro porque los caballos carecían de la movilidad de que gozan en campo abierto. La verdadera lucha se dio entre los peones vizcainos y la caballería enemiga, y ésta no fue capaz de contener el ataque de una masa de hombres a pie para los que ofrecían blanco seguro. Se dice que el conde de Haro perdió trescientos caballos y tuvo mil muertos entre sus filas... Dice Labayru que de esta batalla provino la copla que decía: ‘Esta es Vizcaya, buen conde de Haro. / Esta es Vizcaya que no Belorado’”. Euskal Herrikoen Gaztelako erregearen kontrako garaipena hori zela eta,

Sabino Aranari bururatu zitzaion apirilaren 27a data egokia izatea Aberri eguna ospatzeko.

<sup>10</sup> ETXEPARE, J. Ikus in ALTONAGA, K., *Etxepare Aldudeko medikua*, Euskaltzaindia-EHU, 2006, 164. or.; baita Buruzainek, P. ere: “Les intellectuelles Basques aurent-ils assez de patriotisme pour fair ce qu’ont réussi les Tchèques, les Finlandais eta les Catalans? *Ibidem*, 166. or. MICHELENNAK, L., *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid, 1960, 12. or.: “Por desgracia, (el euskara) no formaba parte de los grupos más influyentes del país”

<sup>11</sup> Beotibar kantuari dagokionez, honelaxe idatzi zuen K. Mitxelenak in *Historia de la literatura vasca*, o. c., 42-43. or.: “Aunque recogido ya por Zaldibia tiene un aire mucho más moderno. Empezando por la métrica misma. El fragmento del romance de Beotibar. “Contra Lekobide” in *Sobre historia de la lengua vasca*, Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca, Donostia, 1988, 854. or.. “Las seis líneas que se conservan son de las más antiguas que nos quedan que se compusieron a sílabas cuntadas, fundadas ‘en el principio de regularidad silábica’ como escribe T. Navarro Tomás”. Ildo bereetik, SARASOLA, I., “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, o. c., 82. or.

<sup>12</sup> MITXELENA, L., *Historia de la Literatura Vasca*, o. c., 41. or.

<sup>13</sup> BAROJA, J. C., *Los vascos*, 514, ikus MITXELENA, L., *Historia de la Literatura Vasca*, o. c., 53. or.

<sup>14</sup> “También en el siglo XVII y XVIII se imprimió en la *Foresta* de Torjada; también en el siglo XVII se imprimen romances que se inspiran en este o lo refunden: “Mala la hubisteis franceses / la noche de los ataques” y “Mala la hubisteis, franceses / sobre el sitio de Valencia”, hay además numerosas citas en ensaladas y obras de teatro. En la tradición oral moderna sólo ha perdurado entre los sefardíes de Marruecos y en una única versión gitana”. Ikus *Romancero*, Paloma Díaz-Mas, Clásicos y Modernos, Crítica.

<sup>15</sup> Ikus in MITXELENA, L., *Textos arcaicos vascos*, o. c., 69. or.. “... y llegados alla pelearon en el çerro de Acondia, que es sobre Vnçqueta, y hubieron fuerte pelea, y fueron vençidos los gamboinos, y murieron Juan de Ybarguen, que hera el mayor de los Ybargoen y muchos otros, y dejaron las calderas llenas de viandas y muchas armas y toda la artillería y asemilas y tres asnas...”.

<sup>16</sup> GOROSTIAGA, J., *Epica y lírica vizcaina antigua*, Bilbao, 1952.

<sup>17</sup> Macbeth seguirá invicto y con ventura / si el gran bosque de Birnam no se mueve / y, subiendo, a luchar con él se atreve. / en Dunsinane, allá en la misma altura. (IV. atalean)

<sup>18</sup> BOUSOÑO, C., *La poesía de Vicente Aleixandre*, Gredos, Madrid, 1968, 244-245. or.

<sup>19</sup> Bereterrecheren kantorea.

<sup>20</sup> Andra Milia Lasturko eresiak

<sup>21</sup> LEKUONA, M., *Literatura oral vasca*, o. c., 79-82. or.: “Entendemos por relaciones de orden sensible, las relaciones no trascendentales (de causa efecto, de todo a parte, etc.; relaciones no de idea a idea, sino más bien de imagen a imagen, de impresión sensible a impresión sensible, ‘asociación que dirían los psicólogos (SG, surrealismoaren sortzea zer ikusi handia izan zuen Freud-ekin), más no de ideas propiamente, sino ‘asociación de imágenes sensibles”.



